



hariak

2017ko martxo

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesia izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin* (2015). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizabal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Komunikatu, transformatzeko. Klitto! atari digitala
testuaren itzultzailea: Unai Villena Camarero

Shamsia Hassaniren ingelesezko oharraren itzultzailea:
Mónica Vega Ortíz

Euskarazko itzulpena: Labayru Fundazioa

Azaleko argazkia: Joseba Sainz de Muruetak egindako mural-muntaketa. 

Ezkerreko muralaren izenburua *En la cresta de la arruga* (Zimurraren tontorrean) da, eta pertsona nagusiei dago eskainita. Eskuinekoak *No hay presente ni futuro sin memoria* (Egiaren mesede jarrai eta ekin) du izenburu, eta 1976ko martxoaren 3ko gertakizunak omentzen ditu. Polizia armatuak bost langile hil zituen, eta beste ehun eta berrogeita hamar lagun zauritu zituen balaz, Vitoria-Gasteizko Zaramaga auzoko eliza batean batzarrean bilduta zeuden langileak irtenaraztean. Denborak aurrera egiten du; zigorgabetasunak oraindik ere badirau.

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

Zure iritzia interesatzen zaigu.

Galdetegi labur honi erantzutea eskertuko genizuke.

<http://hariakhegoa.limequery.com/622675?lang=eu>



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapen dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.es

aurkibidea

2

editoriala

Emantzipaziorako komunikatuz, gizarte-eraldaketarako heziz: prozesuak, baliabideak eta bide komunak

Inmaculada Cabello Ruiz

4

sakonean

Komunikazio askatzailea: emakume indigenen ekarpenak, euren adierazpen, eskaera eta proposamenen bitartez

Sylvia Marcos

12

solasean

Herri-komunikazioa eta herri-hezkuntza elkarren ondoan eraikitzen dira

Oswaldo León

Konektatutako jendetzek beste soziabilitate eta topaketa era batzuk esperimentatzen dituzte

Guiomar Rovira Sancho

22

ekin lanari

Pikara Magazine: oihu egiteko eta ulertzeko kazetaritza

Pikara Magazine

Komunikatu, transformatzeko. Klitto! atari digitala

Klitto! atari digitala

ConsumeHastaMorir. 15 urte bakarrizketari erantzunez

ConsumeHastaMorir

Komunikazio deskolonizatzaile eta eraldatzailea, latinoamerikako herri indigenen borrokarako tresna

Jesus González Pazos



30

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak Boconas • Frame by Frame

argitalpenak Gizarte eraldaketarako komunikAKZIOA. ComunicACCIÓN para el cambio social • Medios democráticos. Una revolución pendiente en la comunicación

erakundeak Equipe Media • Centro de Iniciativas para la Cooperación Batá (CIC Batá)

ezinbesteko agenda Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 9. Jaialdia • Komunikazio Zientzien VIII. Topaketa Panamerikarra, eta Informazioaren, Komunikazioaren eta Kulturaren Ekonomia Politikoaren Batasun Latinoaren X. Nazioarteko Biltzarra

34

matxino artean

"Birds of No Nation" serieko obra

Shamsia Hassani

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Emantzipaziorako komunikatuz, gizarte-eraldaketarako heziz: prozesuak, baliabideak eta bide komunak

Hezkuntza emantzipatzailea bultzatzeak derrigorrean dakar gogoeta sakon, zabal eta ernea egitea eta geure buruari galdetzea zer den guretzat "komunikazio eraldatzailea", zer jarrera politiko dugun komunikazioaren aurrean eta komunikazioaren zer ikuspegi eta prozesu baliatzen ditugun hainbat leku eta eremutatik esperientzia alternatibo eraldatzaileak –berdintasunaren eta gizarte-justiziaren ikuspegitik– sortzeko premia larriarekiko konpromisoa dugula adierazten dugun eragile eta erakundeok.

Gaur egungo testuinguruan, krisi konplexu eta sistemikoan murgildurik gaudela, "hezkuntza emantzipatzaile" gisa, 6. belaunaldiko hezkuntza gisa, ahalduntzen eta deskribatzen ari den hezkuntza etorkizunerantz –garapenaren kontzeptuak huts egin ondoren– bideratzen ari gara. Lau hamarkadaz baino gehiagoz egindako gogoeta, ekintza eta ikaskuntza bidaiak luze horretan zehar, "garapenerako komunikazioa" deituak ("hezkuntza-komunikazioa", "gizarte-eraldaketarako komunikazioa" edo "komunikazio alternatiboa") bilakaera paraleloa izan du, ikuspegi eta proposamenei dagokienez. Proposamen komunikatibo horietako askok alderdi komunak dituzte, eta sintonian daude alternatibak asmatzen eta probatzen dituzten subjektu politiko kritikoak taxutzen dituen prozesu batekin.

Ekintza hezitzaile orok dakar komunikazioa ulertzeko eta egiteko modu bat, eta ekintza komunikatibo oro bideratu liteke gizarte-aldaketarantz. Mario Kaplúnek Paulo Freireren herri hezkuntzaren ideiak eta metodologia aplikatu zituen komunikazioan. Hark, banku komunikazioaren aurrez aurre, komunikazio dialogiko baten premiaren alde egiten zuen, hura hartzen baitzuen subjektu autonomiko, kritiko eta sortzaileak –modu kolektiboan irudikatzen eta eraikitzen zuten gizarte bateko partaideak– sortzeko estrategiatzat. Ezagutza eta pertsona trukea eta interakzioa sustatzen dituen komunikazio baten alde egiten zuen.

Eremu heterogeneo eta aldakor horretan, hainbat ekimen eta hainbat ikuspegi teoriko daude komunikazioari buruz, eta ezinezkoa da paragrafo bakar batean horiek denak laburtzea. Esperientzia multzoa oso zabala eta askotarikoa da: irrati komunitarioak, komunikazio-ekintza alternatibo orokorrak, ziberfeminismoak, *apptibismoak*, horietako bakar batzuk aipatzearen. Hezkuntza emantzipatzailea lortzeko aipagarriena da azpimarratzea eta ulertzea ikuspegi, posizionamendu eta metodo horiek guztiak elkarren osagarriak direla eta pentsamendu kritikoak sortzeko elkarriketa bultzatzen dutela.

Gizartea eraldatzeko komunikazioak eta komunikazio alternatiboek garrantzi handiko alderdiak partekatzen dituzte hezkuntza emantzipatzailearekin. Biek dute orientazio kritiko eta konpromiso sendoa praxi eraldatzailearekin. Biek proposatzen dituzte metodologia partekatutako eta pertsonen eta taldeen diseinatutako metodologiak. Prozesu kolektibo gisa definitzen dira, komunitateek onartu eta sentitu dezaten egiturazko eraldaketaren parte direla.

Nagusi diren eredu komunikatiboak zalantzan jartzen dituzten begiradak bultzatzen dituzte, eta oligopolioen esku dagoen informazioaren merkantilizazioa desmuntatu eta salatzen dute. Komunikazio eta informazio prozesu nagusien "deskolonizazioaren" alde egiten dute. Paradigma berrietara zabaltzen dira, hala nola, "ondo bizitzea" eta "prokomuna".

Begirada horien guztien artetik, hezkuntza emantzipatzaile eta gizarte-eraldaketarako komunikaziora iristeko ezinbesteko ikaskuntza gisa eta aldaketa ardatz gisa agertzen dira posizionamendu feministak. Esperientzia feministak gure eguneroko bizitzan eta egituretan finkatuta dauden bazterketa mekanismoak desmuntatzen erakutsi digu.

Ezkutuan dauden aniztasunak eta errealitateak ikusezin bihurtzeko prozesuen kontra matxinatzen dira feminismoak. Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren betebeharra da korrante informatiboaren bitartez -nahita- lurperatuta dauden errealitateak agerian jartzea eta horiei ekitea. Feminismoek esperientzia luzea dute pertsona ororen eskubideen, aukeren eta tratu berdintasunaren aldeko erreibindikazioaren alde borroka egiten.

Metodologiaren eta estrategiaren ikuspegitik, feminismoek pertsonen eta eragile politikoen ahalduzko prozesuak bultzatzen dituzte, partaidetza eta gizarte-eraldaketa gauzatzeko. Ildo horretatik, gizarte-eraldaketarako komunikazioaz jarduten dugunean, beraz, hezkuntza emantzipatzailearen proposamenarekin eta feminismoetatik sortutako esperientziekin batera existitzen diren eta haiei lotzen zaizkien helburu komunak aurkitzen ditugu.

Komunikazioa funtsezko eskubidea da, eta komunikazioaren alorreko kolektibo eta kolektibo profesional asko ari dira eskubide hori herritarrei onar diezaien eskatzen, eta aldaketak proposatzen ari dira eraginkorra izan dadin. Hala ere, komunikazio ona edukitzeko eskubidea ez ezik, ondo komunikatzeko betebeharra ere badugu, modu askean, estereotiporik gabe eta modu eraldatzailean. Hainbat leku eta borrokatan egiten diren eztabaida horietan guztietan eta beste askotan sakontzen du, hain zuzen ere, *Hariak* aldizkariaren bigarren ale honek. Espazio honetatik, esker ona adierazi nahi diegu lan honetan nahasteko prest agertu diren pertsona guztiei.

Inmaculada Cabello Ruiz
Mujeres en Zona de Conflictoren
Garapenerako Hezkuntza Koordinatzailea



Sylvia Marcosek lagatako irudia.

Sylvia Marcosek dokoretzaondokoa du Psikologian eta Erljioen Soziologian, Harvardeko Unibertsitatean, eta unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea da. Ameriketako emakume indigenen mugimenduekin konpromisoa duen akademikoa da, baita metodologia deskolonialaren bultzatzailea eta ahozkotasanaren hermeneutikoa ere. Argitaratu dituen liburuen artean, hauek nabarmendu behar dira: *Tomado de los Labios: Género y Eros en Mesoamérica*; *Diálogo y Diferencia: Retos feministas a la globalización*; *Mujeres, Indígenas, Rebeldes, Zapatistas*; *Otro mundo... otro camino feminista*, eta *Mujeres indígenas y cosmovisión descolonial*.

Komunikazio askatzailea: emakume indigenen ekarpenak, euren adierazpen, eskaera eta proposamenen bitartez

Emakume indigenek beren eskubideei buruz egiten dituzten aldarrikapenak aintzat hartzeko garaian agertzen den erronka nagusietako bat haien sakoneko esanahiak ulertzean datza. Esanahi horiek atxiki ahala, komunikazio "dialogikoan" oinarrituriko zenbait ikuspegi posible agertzen dira, zeinetan haien hautemate, balio eta ezagutzen bidez adierazten, osatzen eta esanahiz berritzen baitira proposamenak.

Zenbait adierazpen aztertuko ditugu, ikusteko nola agertzen den "eskubidea" edo "nire eskubidea". Izan ere, Amerikako kontinenteko emakume indigena

antolatuek birkonfiguratu egin dute terminoa. Komunikazio askatzaile eta deskolonizatzaile batera garamatzate haien ahotsek. Eta haien diskurtso eta antolaketa jardueretan atxiki ditzakegu esanahi berri horiek.

Emakume indigenen mugimendu zabalaren baitako antolakunde eta elkarte politikoaren bileretan sortutako dokumentuetan bildutako adierazpen, ekintza plan, eskaera eta proposamenek giza eskubideen kontzeptu tradizionalak birkonfiguratzea lortu dute. Azken urteetako bilera nagusietatik eratorritako dokumentuen

irakurketa analitikoak erakusten ditu birsortze prozesu horren nondik norakoak. Emakume horiek aldatzen ari dira emakume indigena gisa egiten ari diren borroken baitan eskubideek duten esanahia, pixkanaka, emakume izateaz duten hautematean –genero erlazioen arloan– nahiz herri indigenen kolektibitateko kidesan oinarrituta.

Dokumentu horien analisiak agerian uzten du herri indigenak eta herri horietako emakumeak gizarte-justiziaren alde egiten ari diren borrokan zer ardatzen inguruan ari diren ikuspegi kontzeptual baliagarri hori erabiltzen eta birsortzen. Hain zuzen ere, ezaugarri nagusi hauek dira aipatzekoak: banakako eskubideenaz bestelako eta eskubideak nagusiki subjektu kolektiboek loturik ulertzen dituen formulazio bat; generoaren kontzeptuaren gaineko ikuspegi propioa, bereizgarri espezifikoek hornitua; eta beren espiritualtasun indigenaren defentsa, zeinak aldarrikatzen baititu, maiz, Mesoamerikako kosmobisio antzinako nahiz garaikideei atxikitako balioak eta esanahiak.

Emakume indigenak, gizartean betetzen duten espazioa dela-eta, identitate askoren arteko elkargunean daude –askotariko klase, arraza, etnia eta genero identitateen arteko elkargunean–, eta berealdiko bultzada ematen ari zaizkio mundu berri baten birformulazioari, mundu justuago baten birformulazioari, ez soilik emakume, indiar eta pobreak izanik dagokien egitekoari dagokionez, baita estatu eredu liberaleko kide izateari dagokionez ere.

Idazki honetan, tarte berezia egin nahi diet emakume indigena antolatuei, nagusiki. Hala, zenbait dokumentu eta elkarrizketa aipatuko ditut, luze eta zabal, haien diskurtsoen barne logikaz jabetzeko –logika ez-esplizitua, batzuetan–. Eta horrela ikusi ahal izango dugu nola bereganatzen dituzten giza eskubideen hizkuntzako termino batzuk eta nola atxikitzen dieten esanahi berria.

Emakume Indigenen Oaxacako Topaketa Nazionalako “Gure historia eraikiz” adierazpenean, honako puntu hauek agertzen dira:

“... Gure herrien eta herrialdearen garapenean garrantzi handiko eragileak gara emakume indigenak;

Emakumeen eta, bereziki, emakume indigenen eskubideak ez daude aitortuta –Konstituzioan–;

“ Komunitate indigenetako generoen arteko erlazioari buruzko ideiek eta ekimenek lotura estua izan dute mugimendu zapatistak egindako proposamenekin ”

Parekidetasunerako eta berdintasunerako eskubidea aldarrikatu genuen, besteak beste, San Andresen (Chiapas), Eskubide eta Kultura Indigenen Mahaian;

Konstituzioaren 27. artikulua aldatu nahi dugu, emakumeek lurra oinordekotzan jasotzeko eskubidea aitortuta izan dezagun ...”¹.

Komunitate indigenetako generoen arteko erlazioari buruzko ideiek eta ekimenek lotura estua izan dute mugimendu zapatistak egindako proposamenekin. Antolakunde independenteetako emakume indigena batzuentzat itxaropen iturri handia izan zen zapatismoa. Aukera eman zien, hain zuzen ere, beraien ikuspegiak zabaltzeko eta eskubideen hizkuntza erabiliz adierazteko beraien identitatea, eskaerak nahiz igurikapenak. Eta, hizkuntza horri esker, beste emakume antolatu batzuekin komunikatu ahal izan ziren, etnia eta klaseen arteko arrakala gaindituta. Azkenaldian, emakume indigenen mugimendu zabal bat sortzen ari da, muga nazionaletatik haratago.

Komunitateetan beren eskaerak egitea lortu dute emakume antolatuek, eragiten dieten tradizioak eta ohiturak kolokan jartzeari eta eraldatzeari begira. Era berean, aldarrikatu dute aintzat har daitezen arau sistema indigenak –ohiturak eta usadioak– nahiz beren komunitateen gobernantzaren autonomia. Alderdi horretatik, beharrezkoa litzateke herri indigenetako emakumeek beraien hartzea beren espazioei dagozkien erabakiak, eta, hain zuzen ere, hortxe adierazten dituzte emakumeek beren eskaera sakonenak, partaidetzari, berdintasunari eta indarkeriarik ezari lotuak. Horregatik iruditzen zaie funtsezkoa beraien tradizioak eta ohiturak eztabaidatzea eta horietako zein kontserbatu eta berreskuratu nahi dituzten eta zein baztertu nahi dituzten erabakitzea.

Nolanahi ere, emakumeen aldarrikapenen “uni-bertsaltasuna” pixkanaka barneratu eta behetik

1 *Cuadernos Feministas*, 1. urtea, 2. zk.



Sylvia Marcosek lagatako irudia.

gora berregin dute emakumeek askotariko tes-
tuinguru kultural eta etnikoetatik. Testuinguru
kultural horiek "emantzipazio indibidualari buruz
Europako iluminismoak duen ikuspegiarekin nahi-
taez bat ez datorren subjektuaren eratze"² batean
oinarrituak dira, maiz.

Gure esparruari dagokionez, "bir-semantizazio"³
horrek Mesoamerikako unibertso kulturalen berezko
ezaugarri batzuk ditu atxikita.

Foucaultek⁴ eta Bakhtinek⁵ ziotenez, hizkuntza
ekintza orok adierazten du prozesu dialogiko bat.
Hau da, aurretiko hizkuntza ekintzaren erantzun
bat. Hala, diskurtsoa –kasu honetan, eskubideena-
aurretiko diskurtsoen *testuinguruan* ageri da, haiekin
elkarrizketan. Hala, diskurtso jakin baten erabilera
aurretiko erabileren eraginpean dagoen arren,
diskurtso hori –aldi berean– diskurtso birformulatu
eta berri bat da, gerora etorriko diren aldaketen
oinarri izango dena.

2 Mahmood, Saba (2005): *Politics of Piety: the Islamic Revival and the Islamic Subject*, Princeton University Press, New Jersey.

3 Hernández, Aida (2004): "El Encuentro Continental de Mujeres Indígenas, Quito, Ecuador, 1995", Emakume Indigenen Bilgune Kontinentalaren Lehen Biltzarraren aurkezpena, Lima, Peru, 3. or.

4 Foucault, Michel (2005): "El orden del discurso", Collège de Franceko hasiera hitzaldia, 1970.

5 Bakhtin, Mijail (2011): *Las fronteras del discurso*, Las Cuarenta, Buenos Aires.

Eskubideen diskurtsoari loturik, horrek esan nahi du "mendebalder" jatorria izateak edo neoliberalismo kapitalistaren filosofiaren arabera eratuak izateak ez *duela haien potentzialtasuna mugatzen*, egokiak badira eta modu dialogikoan erabiltzen badira. Sarritan, esanahi berri horrek elkarrizketatik eratorri eta zalantzan jartzen du aurretiko diskurtsoa, eta kritikoa da harekiko⁶.

Esanahiak iraultzea

Emakume indigenek hizkuntza "dialogikoa" oinarri hartzeak sakoneko aldaketak eragin ditu. Eskubideen subjektutzat izaki indibidual, aske eta arrazionala hartzen duen ikuspegia, berdintasunaren eta askatasunaren kontzeptualizazioak mundu urbano globalizatuen arabera ulertzen dituen, ez da, itxuraz, emakume indigenek adierazten duten horren isla.

"Kosmobisio indigena erresistentzia esparru gisa aldarrikatzen duten emakumeen eskubideen gaineko ikuspegi alternatibo horiek transnacionalizatzen ari dira emakume indigenen mugimendu kontinentalaren bidez, zeinaren erakusgarri agerikoena baita Emakume Indigenen Bilgune Kontinentalaren deritzon nazioarteko koordinazio gunea..."⁷.

Ildo horretan, aipatzekoak dira hainbat bilkuratako agiriak, adierazpenak eta eskaerak: 1995ean Quiton (Ekuador) egindako Emakume Indigenen Topaketa Kontinentalaren; 2002an Oaxacan (Mexiko) egindako Amerikako Emakume Indigenen Lehen Goi Bilera; 2004an Liman (Peru) egindako Emakume Indigenen Bilgune Kontinentalaren IV. Biltzarra; 2007ko abenduan La Garruchan (Lurralde zapatista) egindako Emakume Zapatisten eta Munduko Emakumeen Arteko Topaketa; 2009an egindako Abya Yalako Emakume Indigenen Goi Bilera Kontinentalaren nahiz 2013an egindako Abya Yalako Emakumeen II. Goi Bilera Kontinentalaren; eta 2017an egindako Zapatisten eta Gizateriarekiko Kontzientziak Topaketa.

Instantzia horiek, beste batzuez gainera, *taldean adostutako* hainbat adierazpen, proposamen eta eskaera landu eta plazaratu dituzte. Dokumentu bilduma hori osatzen duten lanak mugimendu indigena zabalarekin loturik eta elkarreraginean daude.

6 Dinamika honi buruzko eztabaida zabalagoa ikusteko, kontsultatu 176. or. eta hur.: Speed, Shannon (2008): *Rights in Rebellion*, Stanford University Press, Stanford.

7 Hernández, Aida, *op. cit.*, 3. or.

Indibidualtasuna, kolokan

2005ean New Yorken egindako Emakume Indigenen Nazioarteko Hirugarren Foroko Adierazpenak zera dio: "Emakume indigenen aurrerabidea ezinbestean lotuta dago gure herriero har dagozkien eta gure komunitateetan emakume gisa dagozkigun eskubide nazionalak eta nazioartekoak babesteko, errespetatzeko eta lortzeko borrokarekin". Emakumeek emakume gisa dagozkien eskubideak aldarrikatzen dihardute, baina ahaztu gabe osotasun baten parte direla, herri indigenen osotasunaren parte direla. Horrek ezin argiago kokatzen ditu testuinguruan beren eskaeren lehentasun kolektiboak.

Nazio Askapenerako Armada Zapatistaren proiektuari (EZLN) esker, emakume askok aukera izan zuten "ohitura txarrak" kolokan jartzeko, eskubideez hitz egiteko: beren gorputzari buruzko erabakiak; berekiko errespetuaren eskubidea eta indarkeriarik ezaren eskubidea; lanerako eskubidea eta ordainsari justua jasotzekoa; familian, erakundean eta komunitatean erabakiak elkarrekin hartzeko eskubidea, eta etxeko lanen eta seme-alaben hazkuntzaren erantzukizuna gizonekin partekatze eskubidea.

Hona hemen zer dioten Tarcila Riverak, Emakume Indigenen Bilgune Kontinentaleko kichwa buruzagi eta, gaur egun, NBERen Emakume Indigenen Nazioarteko Foroaren (FIMI) lehendakari exekutiboak: "Uste osoa dugu herri indigenek, zeinak eusten baitiogu gure iturrietatik eratorritako genero ikuspegiari, ahalegina egin behar dugula ikuspegi hori bat etor dadin gure gizarte eguneroko errealitatearekin"⁸.

Indarkeria instituzional, domestiko eta egiturazkoarekiko oposizioa; osasun eta hezkuntza eskubideak, bikotearen baitan ekoizle diren heinean; eta euren herri eta antolakundeetako partaidetzari loturikoak... Ezaugarri horiek guztiek molde berriak hartu dituzte, eta etengabe birformulatzen ari dira "eskubideak" edo generoen arteko egunerokotasuneko erlazioen "demokratizazioa"; eta, bide horretan, etengabe agertzen ari dira korapilo eta ondorio berriak, baita beraien eskaerak adierazteko esparru berriak ere.

8 Rivera, Tarcila (2004): "Género e identidad en el movimiento indígena", Peruko Emakume Indigena eta Amazonikoen Tailer Iraunkorra, Lima, Peru.

“ Emakumeek emakume gisa dagozkien eskubideak aldarrikatzen dihardute, baina ahaztu gabe osotasun baten parte direla, herri indigenen osotasunaren parte direla ”

Hizkuntza "dialogiko" horrek berak zilegitu zituen emakumeen espazioak eta ireki zituen beste espazio batzuk mugimendu indigenaren baitan, oro har.

Edonola ere, "... horrek ez du esan nahi besterik gabe onartu behar dugunik emakume indigenen eskubideak zabaltzeko bidea lineala denik eta gatazkarik ez dagoenik. [...] Ibilbide konplexua izan da, bidean aurrera eta atzera egin izan da –baita bide batzuk alde batera utzi ere–, aliantza, konfrontazio, negoziazio ugariak, eta ez, hainbeste, adostasun errazekoa. Halako desberdintasun sakonak ezaugarri dituen giro batean, nekez pentsa liteke gizarte-mugimendu batek desberdintasun horiek errotik deuseztatzeko ahalmenik izan lezakeenik. Ezin pentsa liteke, halaber, emakumeen nahiak ezaugarri biologiko naturalen arabera interes sorta baten emaitza direnik..."⁹.

"Gaur egun –azaldu du Tarcila Riverak– nekez aurki liteke ekitate eta berdintasunezko erlaziorik, etengabeko indarkeria eragiten dutelako kanpoko eraginek, muturreko pobreak, bazterketak eta gizarte gailenen erlazio molde patriarkalek. Gizonak bizkor ikasi eta bereganatu zituzten molde negatibo horiek. Eta jarrera horietatik eratorri ziren pribilegioak, indibidualismoak, baita etxeko indarkeria deritzona ere. Mendebaldeko erlijioak ere, bere eginkizun ebanjelizatzailearen bidez, sinetsarazi zigun gizonaren saihestetik sortuak garelako geu ere, eta obediencia zor diogula"¹⁰.

"Emakume indigena gisa dagozkigun eskubideek herri indiarren autonomiaren aitortza dute oinarri, esparru horretan ebatziko dira, hori baita molde demokratikoena, gure baitatik sortua, gure etxetik komunitatera eta herrira hedatu eta estatuan sintetizatzen dena..."¹¹.

9 Garza, Ana Maria (2000): "Autoridad consenso y género", in *Memoria*, 139. or.

10 Rivera, Tarcila, *op.cit.*

11 Biltzar Nazional Indigenaren (CNI) biltzarraren sorreran emakume indigenek egindako proposamena, Mexiko, 1996.

Emakume indigenen hizkuntza dialogikoa, feminismoari dagokionez

Nurín (Michoacán) egindako Hirugarren Biltzar Nazional Indigenan, emakumezko komandante zapatistek eta hogeita hamar herri indigenatako emakumeek genero eskubideak eta beren herri eta komunitateetan parte hartzeko eskubideak bermatzeko eskaera eta interesa adierazi zuten¹². Emakume gisa zegozkien aldarrikapenekin batera, indigenen eskaerak ere aldarrikatu zituzten, gizarte-eragile espezifiko gisa eta, aldi berean, beren kolektibitateen parte gisa. Biltzar haietan emakumeek izandako lidergoak betiko arrastoa utzi zuen.

"Azken bost urteetan, hainbat alderdi argitu behar izan ditugu gure artean. Ohartu behar izan dugu gure herrien alde borrokatzeak komunitate indigenako kideen arteko desberdintasunak eta pribilegioak ezabatzen laguntzea ere esan nahi duela, gure gizonezko liderrei ulertaraztea oreka berrezarri beharra dagoela guztion arteko erlazioetan, eta emakume indigenen gaitasunak hobetzeaz hitz egiteak eta horren alde lan egiteak ez duela esan nahi antolakundea zatitzea, askotan bestela esan badigute ere, baizik eta, are gehiago, elkar sendotzea eta borroka kolektiboan batasuna areagotzea"¹³.

Beste esperientzia dibertso batean, lurralde zapatistan, chksaw emakume indigena batek, Shannon Speedek¹⁴, kontatzen du nola erantzun zion Rosaliak ezkerreko borroka feministetan ohiko bihurtutako galdera honi: alegia, ea gizonek esaten dieten emakume gisa dagozkien eskubideak gauzatzeko itxaron egin beharko luketela, indiar herrien defentsaren aldeko borroka helburu nagusia ez oztopatzeko.

Nicolás Ruiz komunitateko kidea da Rosalía; pentsakor eta gogoetatsu gelditu zen pixka batean, galdera horri erantzun aurretik. Eta, gero, zera erantzun zuen: "Nik uste dut alderantziz dela. Antolakundearen bidez hasi ginen geu ere antolatzen, emakume gisa

dagozkigun eskubideez jabetzen ...". Eta gehitu zuen: "Gizon batzuk beste batzuk baino kontzienteagoak dira horretaz, baina ongi dakite komunitate batean, aurrera egin nahi bada, elkarrekin lan egin behar dutela gizonek eta emakumeek, eta horregatik lagundu ziguten".

Xoxocotlan, Morelos estatuko nahua komunitate batean, honela mintzatu zen emakume gazte bat, Yoloxóchitl Severiano, Lurraren, Uraren eta Airearen Aldeko Hamahiru Herrien Kontseiluko ekintzailea: "... bakoitzak dagokion parte egin beharra daukalako. Denek gauza bera egingo balute, ezinezkoa litzateke"¹⁵. Horrela adierazi zituen kolektibitatean murgilduta daudenean ematen den osagarritasunezko borrokaren hertsadurak eta aplikazioak.

Generoa, emakume indigenen ikuspegitik

Amerikako Emakume Indigenen Lehen Goi Bilerako "Generoa, emakume indigenen ikuspegitik" laburpen exekutiboan¹⁶ agerian gelditu zen emakumeen mugimendu zabalaren borrokekiko zubia bilatzeko premia. Eskubideen kontzeptua erabiliz, zenbait komunalitate aitortzen dira –berezi, genero indarkeriaren kontrako borroka dagokionez–, baina baita desberdintasun larriak ere. Zoritxarrez, emakume indigenen mugimendu zabal horren eta feminismoaren arteko gorabehera horiek etnia bateko kide izatearen ondorioztat interpretatu ohi dira. Emakume indigenek dakarten berrikuntza dialogikoa beren ingurune sozial, politiko eta klasekotik abiatuta esanahiak birsortzeko aukeran datza, hain zuzen.

Bestalde, generoaren ikuspegi autoktonoaren bereizgarri dagokienez, beste bereizketa handi bat gertatzen da. Jakina denez, generoaren eraikuntzari buruzko teorizazio gehienak Iparralde geopolitikoko tradizio intelektualeko teoriarari feministek landu dituzte. Eta teoria horietako asko ez dira herri indigenei aplikagarriak.

12 Sierra, Teresa (2001): "Conflicto cultural y derechos humanos: en torno al reconocimiento de los sistemas normativos indígenas", in *Memoria*, 147. zk., 19. or., Mexiko.

13 Rivera, Tarcila, *op. cit.*

14 Speed, Shannon, *op. cit.*, 130. or.

15 Marcos, Sylvia, Landa ikerketako oharra, 2009ko uztailearen 18a.

16 Prestaketa dokumentua, Amerikako Emakume Indigenen Lehen Goi Bileran, Oxaka, 2002ko abendua.

“ Emakume indigenek dakarten berrikuntza dialogikoa beren ingurune sozial, politiko eta klasekotik abiatuta esanahiak birsortzeko aukeran datza, hain zuzen ”

Lehenik eta behin, generoaren definizio gisa esaten bada –oso modu sinplean adierazita– sexu desberdintasunaren gaineko eraikuntza kulturala dela, teoria oso zehatz eta ñabartuak eraiki beharko lirateke izakien hautematean aldaketak eragiten dituzten alderdi kultural guztiak ongi zehazteko, alderdi “biologikotik” hasita. Kolokan legoke sexuaren eta generoaren arteko bereizketa bera –elkarren baztertzaila diren kategoria gisa–, eta ez litzateke hasiera besterik. Jakina denez, komunitate batzuetan izaki bat femeninoa edo maskulinoa den definitzen duena ez dira izaki horren ezaugarri genitalak –sexua–, baizik eta izaki horrek bere talde sozial edo familiarrarekin elkarrengaitan duen modua, hau da, generoa. Hortaz, mundu horietan, gizonen eta emakumeen arteko bereizketa eta definizioa generotik eratortzen da, eta ez anatomiatik, ez sexutiko¹⁷.

Azpimarratu nahi nuke emakume indigenek zergatik adierazten duten ondoeza eta arbuioa emakume urbano edo/eta elitekoen testuingurutik “genero justiziazko” proposamenak egiten dizkietenean.

Oaxacako Goi Bilerako generoari buruzko dokumentuaren zenbait erreferentzia argigarriak dira emakume horiek beren komunitateetako gizonetik harremanetan non kokatzen diren ikusteko. Eta horrela asmatuko dugu haien lehentasunak eta bereiztasunak errespetatzen.

Mundu mesoamerikar indiarretan, dualitatearen kontzeptuaren esparruan ulertzen da generoa, batik bat. Unibertso guztia dago dualtasunaren arabera antolatuta; maskulinoa eta femeninoa elkarren osagarri dira; baina, beraien eskubideen parte gisa aldarrikatzen dutenean beraien kosmobisioak generoari buruz duen ikuspegiari eustea, beraien

borroka nondik datozen erakusten dute: “Dualitatea, teoria gisa, gure kosmobisioaren eta ohituraren parte da, baina, praktikan, egoera asko daude, non gizonen soilik erabakitzen duten... Hedabideek, eskolak eta beste elementu askok berebiziko eragina izan dute dualitatearen printzipio hori kolokan jartzeko”¹⁸.

Horixe da emakume indigenek berreskuratu eta biziberritu nahi duten esparru sinbolikoa, emakume urbanoek generoa beren aldarrikapenetan txertatzeko duten modura lerratu ordez. Emakume indigenak oso aktibo ari dira, emakumeen duintasunari erasotzen dioten ohitura guztiak birkontzeptualizatzen ari dira: orotariko indarkeriak, familiarreko hitzarmenen arabera ezkontzeko derrigortasuna, emakumeak izateagatik gutxiespena, etab. “... txikitatik uste dute ez garela hutsaren hurrengo baizik”, adierazi zuen Esther komandanteak Diputatuen Ganberan, 2001ean.

Baina dualitatearen polo bati buruzko gutxiespenezko iritzi hori ez dator bat haien herrien filosofiarekin, ezta beraien biziraupen garaikidearekin ere. Emakumeek dualitatea aintzatesten dute, eta gizonetik osagarritasuna aldarrikatzen dute orain. Eta, puntu horretan, berdintasunaren feminismoarekiko –eta subjektu indibidualaren filosofiatik ulertutako eskubideekiko– beste gatazka handi bat sortzen da. Eskubideen subjektuak izaki independentea behar du izan, eta ez izaki interdependentea, herri indigenetan gertatzen den bezala, non elkarrekiko lotura baitago, ez gizonaren eta emakumearen artean eta emakumearen eta gizonaren artean soilik, baizik eta baita kolektibitate zabalagoen artean ere, hala nola, familia zabala, komunitatea, herria eta, are gehiago, naturako izaki guztia. “... emakume zapatista gisa, gure gobernu autonomoan obeditzen aginduz parte hartzeko dugun eskubidea eta askatasuna gauzatzen ari gara; gizarte berri bat eraikitzeko guretzako espazio bat zela ohartu ginen”¹⁹.

Emakume Zapatisten eta Munduko Emakumeen arteko Topaketan, Caracol de La Garruchan, honako esapide hauek entzun genizkien emakumei, 2007an: “Gizonekin eskuz esku borrokatu”, “gizonek eta emakumeek elkarrekin egin dezakegu bidea”,

17 Moore, Henrietta L. (1994): *A Passion for Difference*, Indiana University Press, Bloomington, 24. or. Gai hau garatzeko, ikus: Marcos, Sylvia (1996): “La construcción del género en Mesoamérica: un reto epistemológico”, Universidad Veracruzana, Xalapa.

18 “Género” dokumentua, Amerikako Emakume Indigenen Lehen Goi Bilera, Oaxaca, 2002ko abendua, 7. or.

19 Subcomandante Insurgente Galeano: “Preguntas a las Ciencias y las ConCiencias”, San Cristóbal de las Casas, CIDEI, 2016ko abenduaren 26a.

"gizonak eta emakumeak errespetatzea", "batasuna", "bidea elkarrekin egitea", "gure borroka ez da guretzat soilik, emakume indigenentzat, baizik eta herri indigena eta ez-indigena guztientzat", "nik, neska naizen heinean, eskubide guztiak ditut", "9 urte beteko ditut 2008ko urtarrilaren 8an", "nik, neska naizen heinean, gustukoa dudana egiteko eskubidea dut"²⁰.

Emakume horientzat, generoen arteko berdintasuna bi muturren arteko "oreka" da, eta hala izendatzen da: femeninoaren eta maskulinoaren arteko oreka da. "Oreka horrek" polaritateak eta haien muturrak egonkortzea lortzen du, une batez. "Eskubidea" nahiz "genero harremanak" terminoak birkontzeptualizatzeko programa batez ari gara, beste ezertaz baino gehiago.

“ ‘Eskubidea’ nahiz ‘genero harremanak’ terminoak birkontzeptualizatzeko programa batez ari gara, beste ezertaz baino gehiago ”

Abya Yalako Emakume Indigenen Lehen Goi Bileren Kontinentalaren mandatuak zera dio: "Printzipio kosmogonikoei jarraituz, eta premisa gisa harturik gure kulturak orekan, harmonian, elkarrekikotasunean eta osagarritasunean oinarrituriko balioen sehaska direla..."²¹. Herri indigenetako emakumeek bideratu eta kudeatutako -gizatutako- mentalitateen mugimendu etengabe horretan hautematen dira dimentsio eta berregite horiek.

Esther komandanteak honela adierazi zuen, La Vía Campesina mobilizazioaren kariatara: "Orobat, esan nahi diegu gizonen errespetu dezatela emakume gisa dagokigun eskubidea [...] Ez dugu mesedez eskatuko, ordea; errespetu gaitzaten behartuko ditugu gizonak. Izan ere, askotan, emakumeek jasaten dugun tratua txarra ez da esplotatzaile aberatsak sortua. [...] Hortaz, argi diogu emakumeentzako errespetu eskatzen dugunean ez garela ari errespetu eskatzen neoliberalen soilik: neoliberalismoaren kontra borrokan ari direnei eta iraultzaile direla esan bai-

na etxean Bush bera bezalakoak diren horiei ere eskatuko diegu [...] Garrantzizkoa da diskurtsotik praktikara eramatea gure balio kosmogonikoak, arlo pertsonalean, familian, komunitatean eta gure antolakundeetan"²².

"Espiritualtasun indigenaren" birsemantizazioa

Kontinenteko herri indigenak beren espiritualtasuna bizitzeko eta adierazteko eskubidea aldarrikatzen ari dira. Aldarrikapen hori "eskubide kulturalen" arloan kokatzen da; hau da, "giza eskubideen" esparruan sartu diren eskubideen arloan.

Oro har, esparru erlijioso eta kristauari -bereziki, katolikoari- lotu izan zaio espiritualtasuna -Latinoamerikan, bereziki-. Herri indigenetako emakumeek aldarrikatzen duten espiritualtasuna "indigena" da, ordea. "Erlijioa ez den espiritualtasun bat" da, mexikar emakume indigenek Amerikako Emakume Indigenen Goi Bileran Indigenen Elizbarrutiko Batzordeko gotzainei emandako erantzunean adierazi zuten. Espiritualtasun bat, zeina bereizten baita, maiz, sinesmen katolikoetatik, nahiz eta -batzuetan- agerian dituen jatorrizko esanahiez gabetu eta berriro esanahiz berritutako irudiak.

Horrela ulertutako espiritualtasunak lur hauetara iritsitako konkistatzaile, kolonizatzaile eta katekizatzaile biolentoei suntsitu eta sarraskitutako espazio sakratuak berreskuratzea aldarrikatzen du, hain zuzen ere. Horren adibide izan zen Amerikako Emakume Indigenen Oaxacako Topaketa Nazionala (Mexiko) abian jartzeko Monte Albán hiri sakratuan -Oaxacako estatuan bertan- ospakizun bat egiteko aldarrikapena.

"28 antolakundeotako eta Oaxaca, Chiapas eta Guatemalako hainbat komunitatetako 60 emakume indigenak baino gehiagok -zapotekak, mixeak, mixteak, chontalak, tzotzilak, tzeltalak, k'iche'ak, kaqchikeleak, q'eqchi'ak, poqomameak, tzutujilak, pop'ti', chort'i'ak, mames, achi'ak eta q'anjobalak-, gure dibertsitate, kosmobisio, behar eta lan esperientzia nahiz justizia eta duintasun itzaropenean bat eginik,

20 Sylvia Marcos, Landa ikerketako oharrak.

21 2009ko maiatzaren 30a.

22 Cancún, 2003ko iraila. Honako honetan eskuragarri: <www.nodo50.org/pchiapas/chiapas/documentos/cancun.htm#2>.

“ Horrela ulertutako
 espiritualtasunak lur hauetara
 iritsitako konkistatzaile,
 kolonizatzaile eta katekizatzaile
 biolentoei suntsitu eta
 sarraskitutako espazio sakratuak
 berreskuratzea aldarrikatzen du,
 hain zuzen ere ”

gogoeta kolektiboa egin dugu gure aldarrikapenei buruz:

“Gure herrien antzinako jarduerak eta espiritualtasuna berreskuratzen eta sendotzen ari gara; herri indigenen kosmobisioan oinarrituriko identitateari loturiko garapena sustatzen ari gara...”

Abya Yalako mandatuak zera eskatzen du: “Toki sakratuekiko errespetua eta toki horiek gure he-

rriek administratzea; herrien kosmobisio indigena berreskuratzen dugu, espiritualtasuna eta kultura bizirik iraunarazteko”.

Amaitzeko, aipu bat ekarri nahi nuke orriotara. Zapatisten lurraldean, “escuelita” deritzonaren saioetan, non emakume zapatistak saiatu baitziren erakusten nola lortzen eta bizitzen den askatasuna –hau da, beren autonomia–, zera adierazi zuten emakumeek: “Dagoeneko arlo guztietan gobernatzen ari gara emakumeak... Gure partaidetza gabe, ez legoke herriaren goberneurik, gizonen gobernu baizik; itzelezko lorpena da gobernu autonomoaren hiru mailetan parte hartzea, aurrerapauso handia, EZLN antolakundeari esker lortua, hark irekiarazi baitzizkigun begiak, eta ezkutuan matxino eta miliziano gisa aritutako emakume borrokalariei esker”.

Emakume indigenak *beste mundu* horrekin batera bidea egiten eta elkarrizketa egiten erakusten digute, “gero etorriko dena hobea izan dadin”.

Sylvia Marcosek lagatako irudia.





Irudia: © Comunicación para la Integración de NuestrAmérica-ren foroa.

Herri-komunikazioa eta herri-hezkuntza elkarren ondoan eraikitzen dira

Osvaldo León, ekudortarra da, eta Latinoamerikako Informazio Agentziak (ALAI) editatzen duen *América Latina en Movimiento* aldizkariaren zuzendaria da. Gizarte Mugimenduen Minga Informatiboa eta NuestrAméricaren Integraziorako Komunikazio Foroa koordinatzen laguntzen du. Kontinenteko hainbat koordinazio eta mugimendutan aholkulari-lanetan dabil, adibidez, Landako/Bide Nekazariko Erakundeen Koordinatzaile Latinoamerikarrean. Bakearen Nobel saridun Rigoberta Menchú Tumen aholkulari izan zen. Komunikazioko Goi Mailako Ikasketen Latinoamerikako Nazioarteko Zentroaren (CIESPAL) Administrazio Kontseiluko kidea da. Masterra dauka Komunikazio Zientzietan (Montrealgo Unibertsitatea, Kanada), baita Industria Psikologiako doktoretza (Ekuadorreko Unibertsitate Zentrala) eta Psikologiako lizentziatura (Ekuadorreko Unibertsitate Zentrala) ere. Hauexek izan dira bere azken argitalpenak: *Democratizar la palabra: movimientos convergentes en comunicación* (2013), *Comunicación en movimiento* (2005), *Se cayó el sistema: Enredos de la Sociedad de la Información* (2004).

Komunikazioa demokratizatzeko eta komunikazio eskubidea lortzeko borrokari dagokionez, Latinoamerika eredu da. Zer-nolako mobilizazioak egin izan dira han, kultur praktika alternatiboak saiatzeko bidean?

Osvaldo: Europan, komunikabideak nahiko goiz zabaldu ziren masen artean, besteak beste, industria-ekoizpena handitu zelako, soldatapeko langileen kopuruak ere gora egin zuelako eta hirietan jende asko bildu zelako. Latinoamerikan, berriz, eliteetara mugatu zen prozesu hori, botere-taldeen eskumen gisa; izan ere, testuinguru horretan, herritar-sektore asko guztiz kanpo zeuden bizitza sozialetik eta politikotik.

60ko hamarkadaren hasieran, AEBek diseinatutako garapen-programak ezarri ziren Latinoamerikan (hala

nola, "Garapena Lortzeko Aliantza" delakoa), eta, garai horretan, komunikabideak hain ziren mugatuak, ezen lehentasuntzat jo baitzen zabalkuntza-bideak "modernizatzea", hartara, aldaketa eragiteko faktore izan zitezkeen. Beraz, determinismo teknologikoaren abaroan, komunikabideek funtsezko zeregina beteko zutela uste zen, eta eskualdeko biztanleen kontzientzia "tradizionalak" aldatzea sustatuko zutela. Hala ere, goitik ezarritako misio "modernizatzailea" porrot hutsa izan zen, eta ez hori bakarrik, komunikabideen kontzentrazioa eta monopolioa indartzea baizik ez baitzuen lortu.

Izan ere, halako programen asmoa zen Kubako Iraultzak inguruan izandako eragin politiko eta sozial sakona apaltzea; iraultza horren ondorenak hainbat adierazpide izan zituen, baina denek konpartitzen zuten ikuspegi bat: demokrazia barne-hartzaile

bat sortzeko aukera. Ondorioz, komunikazioaren esparruan egitasmo mordo bat sortu zen, indarrean zen komunikabideen ordenako desorekak konpontze aldera, eta, besteak beste, halako lemak asmatu ziren: "isiltasunaren murrua haustea" eta "ahotsik ez dutenei ahotsa ematea".

Komunikazio-praktika horiek askotariko bideak erabili zituzten: egunkariak, buletinak, aldizkariak, panfletoak, muralak, komikiak, turutak, irratiak, diapositibak, ikus-entzunezkoak, antzerkia, txo-txongiloak, musika, dantza etab. Askotarikoa zen, era berean, bide horien irismena, zeren, adibidez, bide batzuk tokiko esparruetara, taldeetara edo oinarrizko antolakundeetara bideratzen ziren, eta beste batzuek, berriz, esparru masiboak estali nahi zituzten, nazio eremuan eta are kontinenteko eremuan zabaldua.

Esperientzia askotariko horiek, zein bere abiapuntutik, beren bidea egin zuten, eta, horri esker, pixkanaka-pixkanaka, "beste komunikazio" hori lantzeko tokia sortu zen; hala ere, sakabanatua eta isolatua zegoenez, eragin-indar apala zuen. Horretaz jabetuta, antzeko interesak zeuzkaten komunikabide eta erakundeak koordinatzen eta sareak ehuntzen hasi ziren, arazo komunei batera erantzute aldera: informazioa eta esperientziak elkar trukatu, gaitze teknikoko egitasmoak martxan jarri, eta ekintza eta definizio programatikoak adostu.

Hurbiltasuna bilatzeko bide horretan antolatu zen Herri Komunikabideen eta Komunikabide Alternatiboen Latinoamerikako Topaketa (Quito, 1993ko apirilaren 19-23), zeinak mugarri garrantzitsu bat ezarri baitzuen, izan ere, honako konpromiso hau ezarri zen han: "*komunikazioa demokratizatze mugimendu zabal baten artikulazioa sustatzea, gizartea globalki demokratizatze bidearen barruan*". Irizpide horri tiraka idatzi zen Komunikazio Eskubideari buruzko proposamen bat, eta Giza Eskubideen Mundu Biltzarrera bideratu, Vienan egin baitzen urte horretan bertan, ekainean.

"Viena+5" kontsulta-prozesuaren harira, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala sinatu zenetik 50 urte bete zirela-eta, 1998ko irailean foro bat egin zen El Salvadorren; hain zuzen ere, *Nazioarteko Foroa: Komunikazioa eta Herritarrak*. Foro horretan, komunikazioaren inguruko eta mugimendu soziale-tako eragileak bildu ziren, denak ere komunikazioa demokratizatze ahaleginaren bueltan, eta NBERi eskatu zitzaion Komunikazioaren Mundu Gailur bat



Irudia: © Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones del Campo koordinakundearen IV. biltzarreko komunikazio-taldea.

antolatzeko, gizarte zibilak bertan luze eta zabal parte hartu zezan.

Azkenik, organismo horrek Informazio Gizartearen Mundu Gailur bat antolatu zuen (CMSI), eta hori prestatzeko fasean sortu zen Informazioaren Gizarteko Komunikabide Eskubideen Aldeko Kanpaina (ingelesezko siglak: CRIS). 2002ko Mundu Foro Sozialaren barruan abiatu zen kanpaina hori, eta, horri esker, ezohiko oihartzuna izan zuen, hala ideiak zabaltzeko orduan nola hainbat sektore sozialen arteko bat-etortzeak erakusteko orduan; gainera, horri esker sendotu zen hainbat urte lehenagotik martxan ziren bat-etortze, elkarte, edo behinik behin, loturen masa kritiko bat.

Halaxe, demokratizazioaren aldeko borroka honetan ez daude soilik herri komunikabideak, komunikabide alternatiboak, komunitarioak eta abarrak: borroka honetan ari dira, baita ere, software librearen aldeko elkartruke-sareak, komunikabide digitaletako aktibistak, informazio eta komunikazioko teknologia berrien (IKTak) sarbide eta jabetze unibertsalaren aldeko taldeak, komunikabideek erabiltzen dituzten eduki sexisten, arrazisten eta baztertzailen aurrean jarraipena egiteko eta/edo presioa sartzeko erakundeak, komunikabideei buruzko hezkuntza kritikoa (media literacy), erabiltzaileen elkarteak, komunikabideen programazioan esku-hartzea dutenak helburu, informazioa elkartrukatzeko herritarren sareak, Internet bidez artikulatuak, ikertzaile kritikoak, kazetari independenteen elkarteak, genero-ikuspegia komunikabideetan txertatu nahi duten emakumeen taldeak, informazio-askatasunaren aldeko behotkiak, monopolioen aurkako elkarteak, komunikabide

“Politika neoliberalak ezartzen ari zirenez, komunikazioa demokratizatzeko grinaren aurkako testuinguru bat hauspotu zela”

publikoen aldeko taldeak etab. Era berean, horretan ari dira askotariko erakunde sozialak, gero eta gehiago.

Komunikazioa demokratizatzeko helburua hainbat sektore sozialen eta herritarren agendan apurka-apurka txertatzeko prozesuan eragina izan zuen, era berean, gizarteko eragile horiek elkartu egin zirela “irtenbide bakar” gisa aurkezten zen proiektu neoliberalari aurre egiteko. Hain zuzen, alternatibak pentsatzeko premia horren ondorioz elkartu ziren askotariko erakunde eta gizarte mugimenduak, Munduko Foro Sozialean; eta, “Beste mundu bat posible da” kontsignaren bitartez, hainbat kausa sozial ikusarazi eta uztartu ziren, hasieratik bertatik. Hausnarketak eta bizipenak konpartitu ziren, bai, baina ekintzak ere proposatu ziren. Marko horren barruan, komunikazioa demokratizatzeko planteamenduek oihartzun zabala izan zuten.

Gogoan izan behar dugu, ordurako, politika neoliberalak ezartzen ari zirenez, komunikazioa demokratizatzeko grinaren aurkako testuinguru bat hauspotu zela; izan ere, politika horien ondorioz, merkatua bilakatu zen gizarte-ordenamenduaren ardatza, herritartasunaren zentzua lausotuz, eta, horren ordean, kontsumitzailearen figura nonahikoari bide eman. Zehazki, liberalizazio –eta desarautze-politikak ezarri ziren, batez ere telekomunikazioen alorrean; hala, nazioz gairikoa hedapenari oztopo egin diezaiokeen arau edo estatu-espazio oro ezabatzen da. Era berean, araudiak aplikatu ziren, informazioa eta kultur ekoizpena merkantzia huts gisa har daitezkeen lortzeko.

Halako baldintzen pean, politika horiek, praktikan, kanporatu egin zuten komunikazioa demokratizatzeko borroka. Hala ere, joan den hamarkadatik Latinoamerikan dabilzan aldaketa-haizeekin bat, kausa hori indar biziz piztu da berriro; izan ere, jada ez da komunikazioarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden kontua soilik: gero eta eragile sozial gehiagok hartzen dute beren borroka propiotzat, demokrazien etorkizuna bera egurasteko balio du-eta.

Iruzkina labor honetan aipatu ditut prozesu horretako zenbait une funtsezkoak, beraz, azpimarratu behar nuke prozesu hori indartu dela, hain zuzen ere, kapilaritate sozial handia dagoelako hainbat lurraldetan, non hainbat eragilek bat egiten zuten kausa honekin; horren ondorioz, biderkatu egin da mugimendua.

Zer-nolako helburuak lortu dira prozesu honen bitartez eta non dago prozesua une honetan?

Osvaldo: Aldaketa politikoen ondorioz, hainbat gobernuak adierazi dute legezko araudiak ezarri behar direla, komunikazioa demokratizatzeko, kontuan hartuta komunikazioa giza eskubide bat dela. Ildo horri tiraka, politika publikoak sortu dira, aniztasuna eta askotariko ahotsak bultzatze aldera eta beharrezko baldintzak bermatze aldera, aukera berdina egon daitezen eztabaida publikora sartzeko, eta, era berean, dauden desorekei buelta emateko. Alegia, komunikabideen kontzentrazioari eta talde ekonomiko handien interesak lehenesten dituen logikari aurre egin behar zaie, eta, hala, guztia berregituratu, monopolioei eta oligopolioei amaiera emateko.

Aldi berean, komunikazio sozialaren izaera publikoa berreskuratzeko nahia agertzen da, eta, hori dela-eta, aldarrikatzen da gizartea dagoela eremu horren erdigunean: bira kopernikar bat da hori, izan ere, ordura arte, bi eragile baino ez ziren hartzen kontuan, estatua eta enpresariak. Hau da, bermatu behar da gizarteak komunikazio-prozesu guztietan parte hartzen duela, modu aktiboan, kritikoa eta antolatuan. Hori guztia egituratzeko ardatz gisa ezartzen dira adierazpen-askatasun mugagabekoaren defentsa, informazio egiaztatua eta askotarikoa jasotzeko eskubidea, okerrak zuzentzeko eskubidea, etab.

Ikuspegi horretan, alderdi kritikoetako bat da irratia-maiztasunen espektroa –ondasun publiko besterenezina, inpreskriptiblea, enbargatu ezina eta mugatua–, estatuek kudeatzen dutena. Alor horretan, indarrean sartzen dira hiru herenak: enpresen sektorea, publikoa (estatuarena) eta komunitarioa. Bereziki garrantzitsua da kontua, laster ezarriko baita maiztasun digitalen sistema.

Gero, hainbat herrialdek eskakizun berdina egiten dituzte, nork bere ezaugarri bereziak: besteak beste, kulturartekotasuna, tokiko eta eskualdeko ekoizpena eta banaketa, komunikabide publikoak eta komunitarioak sostengatu ahal izatea, kontrol sozialaren eta parte-hartze sozialaren adar praktikoa, erakunde publikoen informazioa eskura izatea (gardentasuna),

iradokiz hori berori ezarri beharko litzaiekeela sektore guztiei, hots, informazio eta komunikazio teknologien sarbide unibertsala eta promozioaren eta publizitatearen alorrean gauzak arautzea.

Hala ere, egoera berri honen aurrean, komunikabide hegemonikoek bere egin dute halako premisa bat, existitzen ez den legea dela legerik onena, eta, hala, ez dute eztabaida zabal eta askotariko bat sustatu; aitzitik, propagandan gotortu dira eta milioi askoko publizitate-kanpainen bidez erantzun dute, bide batez, elkarri oso lotuak daudenak, ez soilik guztiak datozelako jatorri beretik, baizik eta mugimenduak eta euskarriak sinkronizatuta daudelako: ikerketa-institutuak, behaketa-zentro eta erakunde kideak, eta, jakina, komunikabide-korporazioen gremioa, SIP (Prensa Elkarte Interamerikarra).

Halako kanpainei eusteko, botere mediatikoak aldarrikatzen du bera dela adierazpen-askatasunaren paladina, eta, hortaz, askatasun horren aurkako erasotzat jotzen ditu gainerako egitasmoak oro, parametro berriak ireki nahi dituztenak herritar guzti-guztien adierazpen-askatasuna har dadin kontuan. Jarrera hori dela-eta, oposizioko indarrak artikulatzen ditu, eta funtsezkotzat jotzen dute bertan behera uztea orain arte lortu diren konkista demokratikoak, hala legean nola politika publikoetan. Hain zuzen ere, horixe ari da gertatzen Argentinan, Mauricio Macri kontserbadorea gobernuan denez gerotzik.

Hezkuntza askatzaileak, kritikoa izanik komunikazioaren ikuspegi instrumentalarekin, zera proposatzen du: komunikazioaren, talde mobilizazioaren eta gizarte-aldaketaren arteko harremanak sakontzea. Zer zentzu dauka ALAI taldekoek proposatzen duzuen herri komunikazioak eta zeintzuk dira proposamen horren oinarriak?

Oswaldo: Gure iritziz, elkarren ondoan lantzen dira herri komunikazioa eta herri hezkuntza; izan ere, hasieratik, Paulo Freire brasildarrak hezkuntzaren arloan proposatutakoak ditu iturburu, eta, hark azpimarratu zuenez, taldeek euren artean hitz egin behar dute. Horri tiraka, komunikazio-egitasmoak garatzen dira, azken batean, hezkuntza nagusiari egiten zaion kritikaren hedapen gisa, eta, horregatik, komunikazioaren arloko ekintza asko hezkuntzaren arloan abiatzen dira, hala nola, helduen hezkuntzarako jarduerak, urrutiko hezkuntza, alfabetatzea, etab.

“Kontzientzia hartzearen” kontzeptua herritarren antolakuntza-prozesuekin uztartu ahala, ahalegin



Irudia: © *Mídia e Democracia nas Américas* mintegiko komunikazio-taldea.

horiek toki zehatzagoa hartzen dute dinamika politiko eta aldarrikatzaileen barruan, zeren komunikazio-jarduera hartzen baita bitarteko gisa, herritarrek modu kontziente eta antolatuan parte har dezaten eskakizun komunaren aldeko borrokan. Era berean, komunikazio-jarduerak balio dezakete parte hartzen duten taldeen barne-kohesioa indartzeko eta taldeen arteko harremanak elikatzeko.

Denborak aurrera egin ahala, halako adierazpide batzuk zabaldu ziren, hala nola “komunikazio alternatiboa” eta “herri komunikazioa”. Lehenengoa, espazio instituzionaletan erabili zen batez ere, UNESCOk termino hori onetsi baitzuen 70eko hamarkadan, garai hartan eztabaidak izan baitziren Informazioaren eta Komunikazioaren Mundu Ordena Berriaren (NOMIC) proposamenaren harira, eta “komunikazio alternatiboaren” kontzeptua zabaldu zen, jada erabiltzen zen “informazio-kolonialismo” kontzeptuari erantzute aldera.

“Herri komunikazioa” kontzeptua, berriz, bestelako korrante bat da, indarrean den gizarte-egiturak sustatua. Hots, kontzeptualki, “herri” delakoa hartzen du gizartean dagoen menderakuntza-erlazio bateko faktore gisa: sektore menderatzailea/herri sektorea, zeinak gogora ekartzen baitzikigu boterearen kontua eta hegemonia lortzeko borroka –hegemonia ulertuta gidatze gisa, eta ez soilik gehingoaren adierazle gisa–.

Hortaz, soilik zabalkuntza-medioak kritikatzten dituzten bestelako egitasmo batzuen aldean, herri komunikazioak berreskuratu egiten ditu esanahiaren ekoizpen eta erreproduktzio sozialaren baldintzak, eta bereziki

garrantzitsutzat jotzen ditu antolatzeko eta mobilizatzeko prozesuak. Zergatik azpimarra hori? Bada, klase menderatzaileen arabeko antolamendu sozialak zera dakarrelako: klase menderatuak sozialki antolatu ez egotea. Neurri horretan, paradigma giltzarria da, hegemoniaren aurkako erantzuna artikulatzeko.

Korrante honen parte da ALAI; hasiera batean, jardun "in-formatiboa" egiten genuen, eta, gero, herri mugimenduen antolakuntza-prozesuak laguntzeko ildo bat ere zabaldu genuen, mugimendu horiek indartze aldera, bai beren politikak eta komunikazio-estrategiak sendotze aldera, bai horiek abian jartzeko gaitasunak sendotzeko, betiere, bat etortzeko ikuspegiarekin.

Harreman horiek konfiantza politikoa ehundu dutenez, ALAIk ohorezko aukera izan zuen eskualdeko mugarririk historiko bat bultzatzeko: "500 Urtez Egindako Erresistentzia Indigena, Beltz eta Herritarraren Kontinente Mailako Kanpaina" (1989-1992); Andeen inguruko erakunde nekazari eta indigenek eta Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduak (MSK) hauspotu zuten hori. Kanpaina horrek planteamendu berriak egin zituen antolakuntzaren eta kontzeptuen harian (kontsentsuz hartutako erabakiak, aniztasunaren batasuna, etab.), baina ez hori bakarrik: aurrez sekula entzun gabeko elkarte-prozesu bat ireki zuen, eta horixe izan zen gaur egun eskualdean martxan diren koordinazio sozial nagusien hazia, adibidez Landako Antolakundeen Latinoamerikako Koordinadorearen hazia (CLOC-Vía Campesina).

Guri dagokigunaren harira, kanpaina horrek, jakina, komunikazioa izan zuen zutarri, baina, oinarrian, logika militanteak sostengatu zuen, mobilizazioa eta hausnarketa uztartuz, zentzu deszentralizatu batean. Esango nuke hor mamitu zela gerora halako egitasmoek eredu gisa baliatu duten jarraibide bat,



Irudia © 4º Encontro de Blogueir@s topaketako komunikazio-tadea.

hala nola ALCaren Aurkako Kontinente Mailako Kanpainak (2002-2006) egitasmoak baliatu duena. Zehazki, hortxe abiatu zen Mugimendu Sozialen Informazio Auzolana (movimientos.org) deitu duguna, non hainbat sare eta tokiko koordinazio sozial biltzen diren, komunikazio-erantzunak batera abiarazteko; tartean, prestakuntzak eskaintzea eta IKTez jabetzea.

Defendatzen dugun komunikazioa, era berean, pedagogia askatzailea da, eraikitzen den ekintza politiko bakoitzean: nola ezar ditzakegu hori posible izateko baldintzak, kontuan hartuta subjektu askotarikoek hartu behar dutela parte eraldaketa sozialean?

Oswaldo: Gure ikuspegitik, erronka zera da: plataforma komunak ezartzea, halako proposamenak eta ekintzak uztartzeko, hots, oinarri sozialen lurrazpiko munduan kapilaritatea dutenak. Zentzu horretan, parametro horiei jarraitzen dieten kanpaina sozialek bidea ireki digute, nahiz eta ez izan eredu bakarra. Hortaz, milurteko honen hasieran, indar sozial handiak pilatu ziren 500A Kanpainaren ondorioz, eta horri esker egin zuen porrot Ameriketako Merkatu Askeko Gunea (ALCA) sortzeko proiektu estrategiko estatubatuarrak, sekulako indarra hartu baitzuen "ALCaren Aurkako Kontinente Mailako Kanpainak", eta borroka horretan bat etorri ziren mugimendu sozialak, kulturalak, politikoak eta bestelako estamentuak. Bide batez, 500A Kanpainak bildu zuen aurreko kanpainetan baliatutako komunikazio-ikuspegia, eta horregatik adostu zen Informazio Auzolana izan zedila komunikazioaren arloko erreferentzia-puntua.

Plataforma komun batean indarrak pilotzeko ikuspegi horren harira ari da oraintxe garatzen beste prozesu bat, "Mugimendu Sozialen Artikulazioa, ALBAr bidean", bai eta "Demokraziaren Aldeko eta Neoliberalismoaren Aurkako Kontinente Mailako Jardunaldia" ere, zeina lotuta dagoen beste honako kanpaina honekin: "Korporazioen Boterea Eraisteko eta Horien Zigor gabetasuna Amaitzeko Kanpaina Globala".

Guri dagokigun planoan, indarrak biltzen ari gara Gure Amerika Integratzeko Komunikazioa Foroa sendotze aldera: komunikabide eta komunikazio-sareen artikulazio bat da hori, kontinenteko mugimendu sozialak koordinatzen dituen, eta bere helburuak komunikazioa integratzea eta demokratizatzea dira.

Zenbait autorek diotenez (adibidez, Francisco Sierra Caballerok), subjektu edo eragile-sare

berri bat ari da sortzen, eta, horren ondorioz, herritartasun-moduak birpentsatu behar ditugu, eta teknopolitika funtsezkotzat jo; zure iritziz, halako planteamendu kritikoen premia al dugu? Posible ote litzateke urratsak ematea talde sozial askatzaileek agenda komun bat lantzeko bidean?

Osvaldo: Azpimarratzekoa da komunikazioko alorretik beste esparru batzuetara igarotzen ari garela orain dela zenbait hamarkadatik, hala nola politikaren esparrura; adibidez, hauteskundearen guduan, irudia eta inkestak kudeatzea giltzarri da. Eta, orain, hortxe daude "sare sozial" deitutako horiek eta ad-hoc emozioak.

Beraz, bai: egoera berri baten aurrean gaude, eta, besteak beste, bizi-bizi zabaldu da halako fenomeno bat, sozialki ekiteko eta solasteko euskarri gisa baliatzen direla "sareak", modu oso malgu, horizontal eta inter-konektatua. Interneten aurrekoa da artikulatzeko molde hori, sare-formakoa, hala ere, Internet iritsi ostean, modu horren irismena, abiadura eta konplexutasuna sakondu egin ziren.

Konplexuagoa dela kontuan hartuta, konplexutasun hori gardena izateko premia daukagu, eta, hala, lehia kontzeptual batekin egiten dugu topo hasieran bertan, hots, lehia ideologiko batekin. Horren harira galdetzen diot neure buruari: "Sare sozial" izendatu ote ditzakegu beste zerbitzu horiek, megakorporazioek sarean eskaintzen dituztenak, jendeak harremanak sortzeko balia dezan komunikazioa, non erabiltzaileak baitira sare horiek bizirik irauteko euskarria? Erabiltzaileen lana esplotatzen du mekanismo horrek, eta, gainera, erabiltzaileek eskaintzen dituzten datuez jabetzen da: horiek saltzean datza negozio handia. Hona hemen Interneteko munduan adierazten den kontraesan klabeetako bat: halako enpresek ezarri nahi duten *commodity* logika vs. Internetek daukan gaitasuna komunitatea indartzeko, hots, Internet, ondasun komun gisa. Horregatik da garrantzitsua, adibidez, Interneteko neutraltasunaren alde borrokatzea.

Gure ikuspegitik, "sare sozialek" honako hau esan nahi lukete: talde artikulatuen antolakuntza-ereduak, eskakizun eta proposamen komunaren harira batzen direnak, enpresen plataformetan batu ala ez. Hots, gutxika baieztatzen diren eraikinak, baina luze irauten dutenak (sentipenek bezala); eta ez, ordea, une jakin batean elkartzen diren intentsitate handiko loturak, egun batetik bestera desegiten direnak (karga emotiboaren antzera).

“ Hona hemen Interneteko munduan adierazten den kontraesan klabeetako bat: halako enpresek ezarri nahi duten *commodity* logika vs. Internetek daukan gaitasuna komunitatea indartzeko, hots, Internet, ondasun komun gisa ”

Latinoamerikako gizarte-dinamikan, 80eko hamarkadaren amaiera aldera hasi zen beste eredu hori argi agertzen, hots, oro har loturarik ez zeukaten erakunde eta/edo antolakunde sozialak elkartzeko eredu; gero, hurrengo hamarkadan hedatu zen, bai eta antolaketa-eredu bilakatu ere, izan ere, horizontaltasuna eta elkarrekikotasuna oinarri duen sare-formako osatera honek, batetik, osagai heterogeneoak biltzeko balio du, hala nola erakunde formalak eta informala, hierarkia bidez antolatutakoak edo hierarkiarik gabeak, etab; eta, bestetik, nahinora hedatzeko gai ere bada, biderkatu egiten baita.

Hain zuzen, eredu horri heldu zion 500A Kanpainak, eta eredu hori berretsi egin da ondoren etorri ziren antzeko egitasmoetan ere: horien harira, argi geratu da eskualdeko aktibismo sozialak hainbat modu interesgarritan kapitalizatzen dituela Internetek, eta, oro har, IKTek eskaintzen dituzten baliabideak. Modu horretan, oinarri teknologiko bat osatu da, zeinak bideak zabaltzen baitzizkigu komunikazio-sistema demokratiko bat antolatu eta egituratzeko. Atariak, webgunek, blogak, txatak, posta elektronikoa, eztabaida-zerrendak, telefono mugikorren eta mezularitzaren loturak... horiei guztiei esker, bai eta komunikabide alternatibo, herritar, komunitario eta abarrei esker, gizartean gero eta aitortza handiagoa daukan espazio bat sortu da.

Halatan, azken urteotan, berrindartu eta zabaldu egin dira komunikazio-sistema nagusiari kontra egiten dioten askotariko komunikazio-egitasmoak, eta, era berean, indarra hartu du komunikazio-ehundura berri baten ikuspegiak, hegemoniaren aurkako indar gisa garatzen ari den ehundura sozialarekin lotuta. Sormenaren eta berrikuntzaren aldetik, erronka bat dugu hau, zeren zalantzan jartzen baitira ez soilik komunikabideak eta horiek eskuratzeko bidea, edo erantzun diskurtsibo bat, baizik eta diskurtsua bera, mintzaira mediatikoak, estetika eta abar, horiek denek eraikitzen baitute kultura berria eta horren logika soziala.



Irudia: © Manuel Ramírez Rovira.



Konektatutako jendetzek beste soziabilitate eta topaketa era batzuk esperimentatzen dituzte

Guiomar Rovira Sancho ikertzailea da eta irakasle dihardu Mexiko Hirian, Universidad Autónoma Metropolitana Unidad Xochimilco unibertsitatean, Komunikazio eta Politikari buruzko graduondoa. Hainbat artikulu idatzi ditu sare digitalei, gizarte-mugimenduei eta komunikazioari buruz. Hainbat liburu kaleratu ditu, hala nola *Zapatistas sin fronteras* (Icaria Editorial,artzelona; Ediciones Era, Mexiko), *Zapata vive* (Virus,artzelona) eta *Mujeres de maíz* (Ediciones Era, Mexiko; Virus,artzelona). Elkarrizketa honetako hausnarketa batzuek bere azken liburuan dute oinarria: *Activismo en red y multitudes conectadas*; Icaria etxeak eta Universidad Autónoma Metropolitana unibertsitatearen eskutik kaleratu dena.

Gure lan-ikuspuntua oinarria hezkuntza askatzailea da, eta, gure iritziz, eraldaketa soziala bilatzen duen komunikazioa ezinbestekoa da pentsamendu- eta ekintza-eremu horretarako. Zure idatzietan kontatu duzunez, gizarte-mugimenduak jabetu egin dira teknologia digitalez, eta horren ondorioz eta sareko aktibismoaren ondorioz, komunikazio alternatiboa eraldatu egin da: zer zentzutan diozu hori? Sare aktibistek sortutako komunikazioak zer ezaugarri nagusi ditu? Zer abantaila dakartza, antolakuntza eta kultura aktibistaren aldetik?

Guiomar: Internetek aro berri bat ekarri du komunikazio alternatiboaren arloan, izan ere, asko eta asko elkarrekintzan aritu baitaitezke horri esker, mugez haraindi, eta, bestalde, sareak hautsi egin baitu zabalkunde masiboko komunikabideen eskusibotasuna. Komunikabide handien boterea arintzeko, gizarte-mugimenduek bide alternatiboak baliatzen zituzten Internet sortu aurretik: besteak beste, fanzineak eta aldizkariak trukatzeko zituzten, postaz. Mugimenduek kostata lortzen zuten irrati bat, kostata ordaintzen inprenta bat, eta kostata erosten papera, tinta, transmisorea, kamera, ziklostila, gra-

bagailua eta nahasgailua; gainera, ordaindu beharra ziren inprimaketa, fotokopiak, kaseteak, garraioa, posta-zigiluak, telefono-deiak, faxa... Ezin pentsatuzkoa zen gaur egungo egoera, Interneti esker gutxitu egingo zela kostua eta materialen banaketak "zero kostu marjinala" (Rifkin, 2014) izango zuela, hots, kopia doakoa izango zela. Eta are irudikaezina izango litzateke beste hau, hots, denetik egiteko gai izango ginela makina eramangarri, txiki eta prezio aldetik nahiko eskuragarri batekin (telefono adimentsu batekin): harekin egin ahal izango genituela testua, bideoa, audioa, argazkiak, diseinua, bidalketak, gauzak argitaratu zuzenean eta diferituan, eta, aldi berean jaso ahal izango genituela berehalako erantzunak, iruzkinak, remixak, eta, ez hori bakarrik, beste eduki batzuetarako loturak ipini eta hipertestuak sortu... Konbergentzia digitalari eta Interneteko konexioari esker, komunikabide alternatiboak elkartu egin dira, horretarako sareak sortuz, irrati libreek egiten duten moduan, edukiak konpartitzen baitituzte eta, uhinen bidez ez ezik, Internet bidez ere emititzen baitute, eta, aldi berean, sare digital hedatuen plataformetan aritzen... Gaur egun, gizarte-mugimenduek bide berriak eta zaharrak baliatzen dituzte, erabiltzen dute herritarren kaze-

“*In situ* eta *on line* gertatzen direnak fenomeno *on life* baten eta beraren bi maila dira, elkarri lotuak, eta fenomeno horrek uztartu egiten ditu tokikoa eta suminduen prozesu globalak”

taritza eta komunikabide masiboena, mintzairak eta formak, kaleak eta sareak. Era berean, kontuan hartu behar da aktibismo komunikatiboak eta hackerren aktibismoak (*hacktismo* deritzona) ere modu berriak eta aurrekusi gabeak asmatu dituztela talde-ekintzarako.

Esan beharra dago sareek demokratizatu egin dituztela komunikazio-prozesuaren funtsezko bi momentuak, hots, teknologiarako sarbidea daukanaren eskura ipini dituztela bi une horiek: adieraztea eta hartzea. Gogoan izan mezuak igortzeko prozesua pertsona jakin batzuen esku egon dela beti, hots, publikoki hitz egiteko baimena zeukatenen esku (autoritateak, autore "entzutetsuak", intelektualak, politikariak, iritzi-liderrak...). Zentzu horretan esaten dut sarea autoritatearen aurkako egitura bat dela berez, halako "aura galtze" bat baitakar, alegia, desegin egiten du adierazpenaren izaera eksklusibo edo sakratu hori, eta bidea ematen du edozein iritsi dadin kultur ondasunetara. Horren kontra ari dira, hain zuzen ere, hesi pribatizatzaile berriak ezartzen ziberespazioan.

Zure ikerketan iradokitzen da, baita ere, eragile kolektibo berri batek osatzen duela sare aktibista, baina, hala ere, eragile hori ez datorrela bat gizarte-mugimenduak ikertzeko erabiltzen diren aukera analitikoekin: horren harira, zer argudio-bide duzu?

Guiomar: Gizarte-mugimenduaren nozioak gogora dakar antolakuntza-modu oso zehatz bat, langileen protestekin lotua. Kategoria analitikoa ezin da bere horretan tenkatu betirako; 68aren osteko mobilizazioak azaltzeko gizarte-mugimendu berriez aritu ginen, baina gehiegizkoa iruditzen zait gizarte-mugimendu berri-berriak aipatzea gaur egungo sareko fenomeno deslokalizatu eta transnazionalizatzeak. Gizarte-mugimenduen ezaugarria da protesta-multzo aurreikusgarri samar bat garatzea, eta, nolabait ere, batasuna, lidergoa, identitate bat eta sinbologia jakin bat agertzea. Orduan, zer gertatzen da luzaroan irauten ez duten fenomenoekin, aldi berean modu deslokalizatuan jokatu dezaketenak edo erlauntz baten moduan bat etorri daitezkeenak? Gizarte-mugimenduak al dira horiek? Kanpainak? Ala

beste zerbaite? Sare aktibisten nozioa proposatu dut nik. Sare horiek maila transnazionala hartzen dute, eragile heterogeneoek hartzen dute parte horietan, batzuetan taupaka ari dira eta beste batzuetan, berriz, ekintza zehatzetan egiten dituzte, eta gai dira espazio fisikoan eta aldi berean ziberespazioan tupustean sartzeko.

Halako sare aktibista transnazional baten lehen adierazpena modu espontaneoan abiatu zen, Nazio Askapenerako Armada Zapatistari elkartasuna emate aldera. Sare horietako zenbait batu ziren, eta horren ondorioz sortu zen Erresistentzia Globaleko Mugimendua edo altermundismoa, zeina Seattle hirian agertu baitzen 1999. urtearen amaieran. Sare horietan ehundu ziren marko kognitibo komunek aurka egiten zioten ekonomia globalaren eredu neoliberalari eta horren ondorioei.

Azkenaldikoari begiraturaz gero, 2.0 weba garatu ostean, eta halako mugimendu batzuetatik abiatuta, hala nola Udaberri arabiarra, 15M, Occupy Wall Street, Mexikoko #Yosoy132 eta Frantziako #Nuit-Debout besteak beste, bestelako eragile kolektibo bat agertu da, aurrekoak ez bezalakoak: "jende-multzo konektatuak". Halakorik espero ez arren, milaka lagunek plazak hartu zituzten, beren deialdi propioari erantzunez, eta teknologia digitala erabiliz ez osagarri gisa, baizik eta sinergiarako baliabide moduan. *In situ* eta *on line* gertatzen direnak fenomeno *on life* baten eta beraren bi maila dira, elkarri lotuak, eta fenomeno horrek uztartu egiten ditu tokikoa eta suminduen prozesu globalak.

Hezkuntza askatzailearen ikuspuntutik, iruditzen zaigu oraindik ere subjektu kolektiboa dela ekintza politikoaren motorra. Hala ere, sarean abiatutako mugimenduetan badirudi beste zerbaite balioesten dela, hain zuzen parte-hartzearen izaera indibiduala, kolektiboaren aldean. Sakonago azalduko al zenuke ideia hori?

Guiomar: Antolatze modurik laxoena da sarea: nodoen autonomia du ezaugarri nagusi. Mobilizazio batek eskala libreko sare baten tankera hartuz gero, ez du egitura finko bat sortzen; aitzitik, parte-hartzeari zabaltzen dio bidea. Halako mobilizazioetara gaude ohituta, atxikimendu kolektiboetatik abiatuta deitzen direnei. Sare aktibisten kasuan ere, hala nola altermundismoaren kasuan, oholtza beraren gainean ipini ziren hainbat korrante ideologiko, eta munduko hamaika tokitako taldeak, elkarteak, sindikatuak eta GKEak elkartu. Gaur egun, plazak hartzen dituzten jende-multzo konektatuak ikusten ditugu, eta ez dira

gauza bera zehatz-mehatz: ez dira talde antolatutako edo kategoriatuak (etnikoak, adinari lotuak edo klaseari lotuak), ezpada norbanako gisa kalera ateratzen diren pertsonak, haserre-olatuak taxutuz. Horrek zerikusia du, hein batean, eskuordetzerik ezarekin, hitza hartzearekin lehen pertsonan, liderrik edo bitartekaririk gabe. Aldi berean, Lance Bennettek dioen moduan: "Gizartea zatikatu da, eta talde-leialtasunak arrakalatu, eta, horren ondorioz, politika pertsonalizatuaren aroa iritsi da; horretan, adierazpen pertsonal individualizatuaren ekintza markoek hartu dute marko kolektiboen lekua..." (2012:21). Autore horren iritziz, zenbat eta askotarikoagoa izan mobilizazioa, orduan eta pertsonalizatuagoa izango da; plazetako multzoek ethos bat sortzen dute, aniztasuna eta barne-hartzea oinarri, eta edozeinek erabil zitezkeen ekintza-lemak ehuntzen dituzte, hala nola, "%99a gara" edo "suminduak". Sare trinkoen bidez parte hartuta, nork bere historia edo arazoak konpartitzen ditu, eta, hala, mobilizazio-prozesu baten katalizatzaile bihurtzen da pertsona bakoitza, eta prozesu hori hedatzen du lau haizetara, erreduantzia-turrustak sortuz.

Garrantzitsua iruditzen al zaizu herritarrak espazio publikoetan mobilizatzea? Zein da eraldaketa soziala lortzeko borrokaren bozgorailua: kaleak ala ziberespazioa?

Guiomar: Matxinadaren espazioa topo egitearen errealitate fisikoa da. Hitzak entseatu egiten dira, zeren, horien bidez, gorputzak elkarri hurbiltzen zaizkio etsaitasunik gabe, harreman berriak esperimen-



Irudia: © Manuel Ramírez Rovira.

tzen dira, harago joateko, elkarbizitzaren zentzua berreskuratzen da, elkartzearen denbora berrasmutzen da, kapitalismoaren salbuespen-denboraren barruan. Jende-multzo konektatuak performatibitatea dira: estekatutako gorputzak, ez soilik askatasuna desio dutelako denek, ezpada hiri horretan bertan bizi nahi dutelako beste denbora baten erritmoan, berehalakoaren aterpean eta aldi berean konektatzeko gaitasunaren babesean, konpromisoa eta afektua hedatzeko gaitasunaren babesean. Toki mailan agertzen dira, baina hortik haraindi ere badute eraginik. Promesa bat dira, bai eta komunikatu daitekeen bizipen bat ere. Hannah Arendten iritziz (1993), boterea ez datza toki, pertsona edo instituzio batean; aitzitik, sortzen da gizakiak elkartzen direnean, eta desagertzen da, berriz, sakabanatzen direnean. "Boterea erreala da, soilik, hitza eta ekintza ez direnean bereizi, hitzak ez daudenean hutsik eta egitateak ez direnean basa, hitzak ez direnean erabiltzen asmoak ezkutatzeko, baizik eta harremanak ezartzeko eta errealitate berriak sortzeko". Zentzu horretan, gorputzak eta diskurtsoak, ekintzak eta hitzak, plazak eta sareak: denek osatzen dute jende-multzo horiek batu aurreko esperientzia bera.

Honako hau esan izan duzu: azkenaldian egin diren mobilizazioen ezaugarri funtsezkoetako bat dela sarearen ideia, eta sare hori jotzen duzu "performatibo politikotzat". Mugimendu feministaren praktikak dakarzkigu horrek gogora: zuzen gabilta?

Guiomar: Jende-multzo konektatuak konstelazioak dira, eta, horietan, gorputzek abian jartzen dituzte beren desiren eta haserrearen performanceak, eta sozializatzeko eta elkar topatzeko bestelako bideak saiatzen dituzte, ekintza eta dokumentazioa elkartzen dituzten keinuen bidez. Izaera performatibo horri esker, bertan behera utzia zen espazio bat azaleratzen da: komunala denaren espazioa. Jende-multzoak ekiteko gaitasunik gabe uzten du arlo publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia, tupustean sartzen baita murriztu ezin den aniztasuna, tupustean sartzen baitira gorputzak eurak. Hauxe dio Paolo Virnok: "Pentsamendu liberalean, "jende asko" biltzeak kezka sortu zuen, eta hori baretzeko baliatu zen publiko-pribatuaren bikoia" (2003:4). Emakumeak izan ziren bereizketa horren ondorioak jasan zituzten lehenak, esparru pribatura baztertu baitzituzten, giltzapetu, beren senarren jabetzat hartu eta "esparru publikotik" ezabatu, sorginen moduan jazarri. Era berean, norbanakoa/gizartea oposizioaren garaipen analitiko ere mito patriarkala dugu. "*Homo clausus*" maskulino hantustearen aurrean, Norbert Eliasek

ondo ohartarazi zigun gizakiak ez garela norbanako isolatuak, ezta gizartea ere izaki ezberdin eta goren bat; aitzitik, "bilbadura interdependiente" bat gara denok, guztion norabide konpartituaren salatari. Esparru publikoak, abstrakzio unibertsalizatzaile gisa, ezabatu egiten ditu giza bizitzaren berehalako arazoak eta premiak. Hiriak hartzen dituzten jende-multzo konektatuek prozesu kokatu eta gorpuztu bat nahi dute izan. Esperientzia feministak direnez, izendapen hori ezartzeko beharrik sentitu ez arren, uko egiten diote politikaren halako ideal moderno bati, zeinak bizkarra ematen dion bizitzaren erreproduzioaren munduari eta horren tentsioei. Beraz, feminismo esperientziak dira hauek, norberak aske hartzekoak. Sarearen egiturari eusten diotenez, eta lider sendorik ez dutenez aukeratzen, bidea ematen dute energia soziala bestelako modu batean ibil dadin, aitarik, autore bakarrik eta autoritaterik gabe.

Benetan iradokitzailea iruditzen zaigu "kontrapubliko" deritzon terminoa, Nancy Fraserri hartu diozuna honako hau izendatzeko: kolektibo sozialek sortu dituzten espazio diskurtsiboak, sistema neoliberalaren aurrean alternatibak eratze aldera eta, aldi berean, masa-komunikabideen ahots nagusiari kontra egiteko. Kontrapubliko delakoek zer-nolako aukerak dituzte benetan eta modu iraunkorrean eragiteko?

Guiomar: Mugimendu sozialek eta aktibisten taldeek komunikatzeko espazioak sortu nahi dituzte beti, hots, gizarte-talde zapalduen kontra-diskurtsoak zabaltzeko guneak; halaxe dio Fraserrek. Hala ere, *kontrapubliko* horiek arrakasta izan dezaten, jende askorengana iritsi behar dute. Interneti esker, aukera handiagoak daude jende gehiagorengana iristeko, eta ez soilik jada konbentzituta daudenengana; beraz, aktibistek aukera dute ghettotik ateratzeko, hala zuzenean nola zeharka, masa-komunikabideetan eraginez eta, beraz, gizarte baten zentzu komuna eraldatzen lagunduz. Gaur egun, audientziak sare bihurtu dira, beraien artean konektatu nahi duen jendearen arteko sare, eta galbahetik pasa dezakete zer jakin nahi duten eta zer-nolako grinak dauzkaten, informazio-erauntsiaren erdian. Beste kontu bat da ea hori egiten duten ala ez.


Jende-multzo konektatuei dagokionez, jada ez dira komunikabide alternatiboen bidez edo espazio kontrapublikoen bitartez komunikatzen; aitzitik, kalera ateratzen den horrek bere eguneroko komunikazio-espaziotik egiten du, nahiz eta espazio hori guztiz izan politikoki egokia, adibidez, Facebook sare soziala (pribatua, enpresariala), edo

Twitter bera. Ez dira komunikabide alternatiboen inguruan sortu diren *kontrapublikoak*, hegemoniaren aurkako printzipio-sorta garbi baten jarraitzaile; ez, bereizi gabeko *publikoak* dira, eta, erabiltzaile horiek, bat-batean, beren dieta digitala aldatzen dute, eta sareak erabili ordez selfiak zintzilikatze edo ligatzeko, bada, plaza bat topatu eta haserretzeko erabiltzen dituzte, eta lau haizetara zabaltzen dute beren haserre hori: *edozeinak* dira, bat-batean haserretu eta politikoki ekiten dutenak. Eta, hala, kontrapubliko militanteak ipintzen dituzte martxan, eta, bide batez, ezustean hartzen dituzte espazio aktibista politizatuak. Eguneroko bizitzako borrontezko morrontzaren aldean edo kontzientzia handiena duten aktibisten matxinada boluntaristaren aldean, halako iraultza inboluntario bat osatzen dute jende-multzo konektatuek. Badakit oso baikorra dirudiela, baina badago horretarako gaitasuna. Nahiz eta gaur egun horren justu kontrakoa gertatu barra-barra: manipulazioa da nagusi sareetan; kontrolatu eta zelatatu egiten da; gure datuak eta gure sozializazioa negozio erraldoia dira iskanbila burrunbatsuren erdian; beldurra eta heriotza negozio gisa, kapitalaren alde faxista gero eta agerikoagoan; jende-multzo konektatuei buruz hitz egitea horien potentzia ikustea da...

Erreferentziak

- Arendt, Hannah (1993). *La condición humana*, Bartzelona: Paidós.
- Bennett, W. Lance (2012). "The personalization of politics: political identity, social media and changing patterns of participation"; iturria: *The Annals of the American Academy of Political and Social Science* 644, SAGE, 20.-39. or.
- Elias, Norbert (1994). *Teoría del símbolo*. Bartzelona: Península.
- Fraser, Nancy (1997). "Transnationalizing the public sphere: On the legitimacy and efficacy of public opinion in a post-Westphalian World"; iturria: *Theory, Culture & Society* 24(4), SAGE. 7.-30. or.
- Rifkin, Jeremy (2014). "El Internet de las Cosas y la sociedad colaborativa". *El País*, Madril, 2014/09/07.
- Virno, Paolo (2003). *Gramática de la multitud*, Madril: Traficantes de sueños.





ekin lanari

Pikara

online magazine

Nortzuk gara • Pikara

Hemen aurkituko gaituzue • www.pikaramagazine.com

Pikara Magazine: oihu egiteko eta ulertzeko kazetaritza

"Idatzi al dezaket gorrentzako musikari buruzko erreportaje bat?", galdetu zion praktiketako kazetariak uda hartan nagusi zuenari. Erantzuna, ordea, askotariko errealitateei buruz hitz egiten duen kazetaritzaren eta komunikabideen premiaren aldeko arrazoibidea izan zen; alderdien eta kapitalismoaren *setting* agenda hautsiko duten komunikabideen aldekoa, eta orobat, *mass media* deiturikoetan entzun ohi ez diren ahotsentzako eremu izango direnen aldekoa. Kazetaritza berritzaile, apurtzaile eta kritikoa garrantziaren alde egin zuen, eta adierazi zuen azken kalifikatzaile horrek lanbide osoari eragin beharko liokeela, baina gero eta gutxiago agertzen dela.

"Gorrek ez dute musikarik entzuten. Ergelkeria galanta da hori", bota zuen, lotsa izpirik gabe, Euskadin tirada handia duen egunkari bateko arduradunetako batek. Gai hura ez zuten argitaratu gabe utzi, ordea, Pikara Magazine.

Feminista da, beharbada, Pikara Magazine aldizkaria ondoen definitzen duen adjektiboa. 2010. urteko azaroan sortu zen, komunikabide tradizioaletan ateak itxi ohi zitzaizkien gai horiei argitaratzeko aukera emango zien eremua sortzeko helburuarekin. Kazetaritza egiteko "gela propioa", Virginia Woolfek esango lukeen bezala. Baina aldizkaria ez da bakarrik feminista; lehenik, feminismoa ez delako erakunde itxi bat; baizik eta, haustea, lotsagabekeria, gauzak zalantzan jartzea, berrikuntza eta umorea ere funtsezkoak direlako proiektu honen baitan.

June Fernández kazetariaren abentura gisa sortu zen hura –Red Vasca de Periodistas con Visión de Género / Kazetarion Berdinsarea sareko hainbat lankideren babesak eta irakurleen harrera onak goretsia–

kazetaritza horizontalaren eremu bihurtu da (ez dago 'ezetz' esango duen nagusirik), eta orobat bihurtu da eremu parte hartzailea, gozagarria, kritikoa, esperimental eta lanbidea duintzearen alde bere ahalegintxo egiten saiatzen dena.

Ohiko komunikazio enpresetan lekurik ez zuten testu haiek irakurle ugari izan zituzten berehala Pikararen webgunean; berehala hazi zen kolaboratzaile taldea; eta berehala hasi ziren Latinoamerikari buruzko irakurketak iristen, Espainiako Estatutik eta beste hainbat herrialdetatik. Hazkunde iraunkor eta jasangarri horrek berretsi egin zuen zein garrantzitsuak diren loturarik, herentziarik, zorrik edo hierarkiarik gabeko komunikabideak. Hazkunde hori ahalduz eta ikaskuntza prozesu bat izan da eta izaten ari da Pikara Magazine osatzen duten guztientzat.

Aldizkari bat –argitaratutako lau urtekarirekin–, komunikazio eremu bat askotariko feminismo eta feministentzat, eztabaidagune bizi eta amaigabe bat, baina baita barre egiteko eta gozatzeko gune bat ere. Testu ugari ditu, baina baita argazki eta ilustrazio ugari, bideoak, musika, podcastak eta partekatutako hainbat eta hainbat jarduera eta esperientzia, izaera heterogenoaren, intersekzionalaren, zeharkakoaren eta inklusiboaren balioa erakusten dutenak. Ez dago ezarritako kodeak betetzeko zertzeladarik. Kalitatezko kazetaritza (hainbat erreportaje saritu dira), lasaia (gaurkotasuna ez da lehentasuna), analitiko eta askotarikoa (gaztelaniaz, galegoz, euskaraz eta katalanez idatzitako testuak argitaratzen ditugu), era askotako gaiak eta kezak lantzen dituena. Pikara Magazine ez da aldizkari espezializatu bat. Pikara Magazine, azken batean, bere motibazioa ezkututzen ez duen aldizkari bat da.

Ez da ez neutrala ez objektiboa. Eta ez axolagabeke-riagatik, baizik eta ez direlako existitzen hain goratuak eta faltsuak diren balio horiek. "Idaztea protesta egitea da, beti", esan zuen Ana María Matutek. Eta protesta, jarrera gisa, lotsagabea da beti. Hor kokatzen gara, aurrez aurre eta zutik, zalantzan jarriz inguratzen gaituen sistema patriarkala, euro eta androzentrikoa, eta kapitalista, baina ez diogu uzten harrapa gaitzan. Ondo ezagutzen ditugu sistema horren ahultasunak, eta herritarren zerbitzura diharduen komunikazio eraldatzailea da premiazkoa ez den sistema arrazista eta matxista hori husteko modu bat.

Idazten dugu (eta marrazten dugu, grabatzen dugu, esaten dugu, argazkiak egiten ditugu, dantza egiten dugu eta, nola ez, *txiokatzen* dugu) irtenbideak eta narratiba berriak erakusteko; izateko eta harremanak edukitzeko modu desberdinak erakusteko; gutxi ezagutu ohi diren errealitate inspiratzaileak erakusteko. Eta modu horretan, noski, gogoeta eginez gauzak ulertzeko. Gure baitan dago, besteekiko harremanetan eta maila kolektiboan dago, mundu bidegabe eta desberdintasunez betetako hau eraldatzeko gaitasuna. Nigan eta gugan, haiengan edo besteengan, bereizketarik gabe. Izan gaitezen.

Horregatik egiten dugu kazetaritza, bazterretik eta bazterretan egitea iraultzailea delako. Eta oihu egin dugu, eta nor garen, nondik gatozen eta nora goazen esaten dugu; mozorrorik gabe. Zintzotasunez eta pasioz.

Eta saiatzen gara hausten, baina ez bakarrik testuen bitartez, baita eguneroko funtzionamenduaren bitartez ere. Pikara Magazine elkarte bat da, irabazi asmorik gabea, autokudeatua eta jasangarria, zeinetan horizontalean eta modu partekatuan hartzen diren erabakiak. Koordinazio taldea, hierarkiarik gabea, hiru kazetarik eta administrari batek osatzen dute; talde horrek, halaber, argitaratzaile talde baten eta proiektuan sartuta dauden kolaboratzaile finkoz osatutako sare baten babesa du.

Hasieratik beretik, kazetaritza lanen ordainketak lehentasuna izan dira; izan ere, ahalegina ez da bakarrik argitalpenen kalitatean oinarritu behar, baita kazetarien, ilustratzaileen eta argazkilarien irudia duintzeko zereginean ere, komunikazio enpresek oso gaizki tratatu baitute irudi hori. Are gehiago, beren lanagatik lehen aldiz kobratzeak ahalduintasuna eman die gure lankideetako batzuei, eta, horri esker, kazetaritza edo ilustrazioan *freelance* gisa jarduteko jautzia eman dute.



Irudia: © Emma Gascó.

Aldizkari bat baino zerbait gehiago

Talde ikaskuntzaren, autokritikaren eta jasotako maitasunaren ondorioz, Pikara Magazine ez da dagoeneko webgune soil bat, ezta paperezko urtekari bat ere; Pikara topagunea da gaur egun (batez ere, Bilbon erredakzioa duenez geroztik), eta baita eztabaidarako eta truke kulturalerako gunea ere. Ugariak baitira erronkak: koordinazio taldearen ahalegin nagusietako bat irisgarritasuna hobetzea da. Horretarako, zabaltzen eta hobetzen ari da orain dela urte batzuk sortutako Ikurren Hizkuntzari buruzko Glosategi Feminista, interpreteekin lan egiten ari da aldizkariaren hainbat ekitalditarako edo bideo bidezko elkarrizketetarako, eta bideoetako batzuk izenpetzen ari dira.

Pikararen barruan dagoen beste proiektuetako bat La Almanaka da, jarduera feministei buruzko agenda komunitario bat, *online*; eta baita Forua ere, eztabaidarako, ezagutzak eta materialak trukatzeko gunea lasaia.

Horren guztiaren ondorioz, Pikara Magazine inklusio eta etenik gabeko ikaskuntzaren proiektua bihurtu da. Eta proiektu partekatua, noski. Filosofia bereko talde sozialekin, GKEekin, mugimendu sozialekin edo komunikabideekin sareak osatzea da beste zeregine-tako bat. Izan ere, feminismoa masa komunikabide-tan tarte txikia lortzen ari bada ere –nolabaiteko pagotxa ikusi baitute genero ikuspegian–, eta hori erabiltzeko moduagatik, osagai heretikoa bihurtzen da, eta *click*-en biltegi bat. Eta feminismoak zehar-kakoa izan behar du, ez atal bat, ez titular bat; tes-tuak ez ezik, gauzak egiteko moduak, elkar erlazio-natzeko, konprometitzeko eta eraldatzeko moduak ere hartu behar ditu bere baitan.



Komunikatu, transformatzeko. Klitto! atari digitala

Transformaziorako komunikazioa behar den bezala, komunikaziorako transformazioa beharrezko tresna da. Urte luzez bigarren plano batean geratu dira hainbat ahots; urte luzez tabu bilakatu dira hainbat gai, gaur dugun gizarte heteropatriarkal eta kapitalista elikatuz.

Euskararen esparruan ere, antzeko borroka bat bizi izan du gure herriak hamarkada luzeetan zehar. Eta gai honetan ere, hainbaten lani, borrokari eta maitasunai esker, hizkuntza "putzu sakon eta ilun bat" izatetik askatzen ari da.

Hala, feminismoa eta euskararen borroka paraleloan doazen bi errealitate direnaren jakitun, eta batak zein besteak euskal gizarteari eskaintzen dietena eta eskaini diezaieketena zenbatekoa den ohartuz sortu genuen Klitto!.

Feminismoaren inguruko aldizkari digital euskalduna da Klitto!. Gizarte-eraldaketarako komunikabide bat, ahotsa, plaza edukitzeak duen garrantziaz jabetuta sortu genuen. Agerikoa da heteropatriarkatuari -hegemoniari- aurre egiteko behar-beharrezkoak direla agente politiko iraultzaile bezala sortzen diren hedabide edo espazioak; nahi eta nahi ez, feministak izan behar direnak.

Horri gehituko genioke euskara; bat gatoz Idurre Eskisabel eta Lorea Agirrek azaltzen duten paralelismoarekin: feminismoa eta euskara, biak ala biak transformaziorako tresna; biak ala biak hegemoniari aurre egin nahian; biak ala biak zapalkuntza irauli nahian.

Bada, gure eguneroko errealitateari erreparatuz, hausnarketa egin genuen, Klitto!ren sorreraren atarian (2015), gure eremu geografikoa (Euskal Herria), politikoa eta hizkuntzari dagokiona aintzat hartuz, eta zenbait ondoriori erantzun nahian erabaki genuen Klitto! moduko espazio bat sortzea tresna baliagarria izan zitekeela Euskal Herrian.

Euskal Herriko mugimendu feminista indartsua da, berritzailea, eta gero eta zabalkunde eta eragin handiagokoa. Espazio mediatikoak bereganatzen ari da, pixkanaka; hedabide tradizioaletan lekutxo eskaintzen diote egunkari, aldizkari, telebista eta irrati generalistek. Gainera, kolektibo feminista gehienek badute euren atari digitala, edo badute espazioa sare sozialetan.

Halaber, feminismoaren inguruan euskaraz arituko zen gune erreferente baten falta nabaria zen. Euskal Herriko Mugimendu Feministek erderazko medioak dituzte -zituzten?- erreferente nagusi, eta gabezia horri aurre egiteko asmoz sortu genuen Klitto! atari digitala.

Hasiera batean, kazetaritza arloan jardungo zuen webgunea izateko sortu genuen: Pikara Magazine erreferente hartuta, kazetaritza ikuspuntu feministatik eta euskaraz lantzeko, alegia. Aldiz, Klitto!ri eskaintzen diogun denbora -bai sortzaileok zein kolaboratzaileek- erabat borondatezkoa dela kontutan hartuta eta, norberari nahi duenean/nahi duen kolaborazioa egiteko eskatzen diogunez, beste baldintza edo eskakizunik gabe, garapen propioa izan



Hemen gaude

Konspiratzea elkarrekin arnasa hartzea delako



Eraso lodifoboan aurkako gidaliburua

du proiektuak. Martxan jarri, eta bere ibilbidea egin du, urratsez urrats, gure hasierako burutaziotik aldentuz, baina beti gure bi balio nagusien baitan: feminismoa eta euskara.

Gaur, iritzi eta analisiak hartzen dute espazio gehien Klitto!n. Baliabide aldetik, sortzen errazena direlako, behar bada (ez dute eskatzen erreportaje, elkarrizketa... batek behar duen denbora, bilaketa lana, gaiaren lanketa...), eta irakurleek ere mundua betaurreko moreekin interpretatzeko gakoak bilatzen dituztelako webgunean.

Ia bi urteko ibilbidearen ondoren, ikusi dugu Klitto! Ez dela soilik espazio iritzi-sortzaile eta, beraz, transformatzaile bat, baizik eta plaza eskaintzen diela beste hedabide handi, hegemonikoetan ahotsik edukiko ez luketen ideia eta protagonistei: bai hedabide horiei interesatzen ez zaielako, edo baita, hedabide horiek plaza arrotz bezala sentitzen dituelako jendeak. Klitto! Pertsona askoren eta, batez ere, neska gazteen ahalduntzerako tresna interesgarria bihurtu dela iruditzen zaigu: egunerokoan ikusitakoak, jasandakoak, kezka sortzen dien gaiak hausnartu eta horien inguruan idazten dutelako atarian.

Birsortze prozesu batean dago orain Klitto!: kazetaritza feminista euskaraz egin ordez, egunerokoan ditugun baliabideak kontutan hartu, eta iritzi eta analisisirako gune izatera igartzeko bidean gara. Eragile politiko bezala, euskaraz eta feminismotik diharduen halako espazio batek duen potentziala ikusten dugu, eta tresna moduan hobetu nahi dugu, lehen aipatutako ahots horientzat benetan erreferente baliagarria izan dadin. Guk bereziki bilatu gabe, Euskal Herriko neska gazteak bihurtu dira gehien bat Klitto!ren jarraitzaile, eta gizartearen eraldaketarako subjektu horiek duten garrantzia kontutan hartuta, espazio hori eskaintzea da gure helburua.

Baina nola? Ezinezkoa litzaziguke Klitto!ren irakurleak aktibatzea transformaziorako beharrezkoak diren sare sozialik gabe. Zail da komunikazioaz jardutea hauen indarra eta garrantzia aipatu gabe. Eraldaketa sozialerako gako bihurtu dira sare sozialak; eta Klitto! bere eskura dituen guztiak erabili ditu atariko protagonisten kezka, iritziak, esperientziak eta hausnarketak ahalik eta gehien zabaltzeko. Gainera, sare sozialak ez dute soilik, edukien hedapenean laguntzen, komunitatea sortzeko erraminta oso baliagarriak ere badira; jendeak edukiak bere egiteko aukera eskaintzeaz gain, elkarreraginerako tartea ere zabaltzen du. Gure moduko atariak oso jarraitzaile "fidelak" dituzte. Irakurleek badakite zer aurkituko duten Klitto!n eta eduki horiekin bat egiten dute gehienetan. Klitto!ren oinarriak dira sare sozialetan lortu duen babesa eta sortu duen komunitatea.

Bestalde, tenperaturaren neurgailu aproposak ere badira sare sozialak; klitto! atari digitala sortu eta berehala hasi zen jende andana sare sozialen bitartez gu jarraitzen, horrek, nolabaiteko hutsune bat betetzera etorri ginela erakutsi zigun; hau da, jendeak nabaritzen zuela halako egitasmo baten beharra.

Gaur egun gure Facebook orrialdeak 2.835 atsegite ditu eta Twitterrean, 2.204 jarraitzaile ditugu; ez dira zifra makalak kontuan izanda euskara hutsean aritzen gara.

Uste dugu baditugula baliabideak eraldaketarako, geroz eta errazagoa da bozgorailuak lortzea; kontua horiek ondo erabiltzean da. Guk euskaratik eta feminismotik eraldatzen jarraitu nahi dugu.

Klitto! atari digitala



Nortzuk gara • ConsumeHastaMorir

Hemen aurkituko gaituzue • www.consumehastamorir.com

ConsumeHastaMorir. 15 urte bakarrizketari erantzunez

Madrilgo Ekologistak Martxan taldeko hainbat kidek lantalde bat osatu genuen 2002ko maiatzean, kontsumoa eta komunikazioa jorrazteko. Kanadako, AEBetako edo Frantziako zenbait talderen jardunak harrituta utzi gintuen; izan ere, lotsarik gabe erabiltzen zuten iragarkien mintzaira, *subvertising*, *antipub* edo *kontra-publizitate* izenpean, eta horren guztiaren asmoa zen kontsumo-gizartea kritikatzeko, modu garratz eta sarkastikoan, inor epel utzi gabe.

Publizitatea da balio anti-sozialak hedatzeko bide boteretsuenetakoa, eta, gainera, bakarrizketa bat da, ezin baitzaio benetan erantzun; horregatik, proiektua abiatzeko asmoz, kontra-publizitate grafikoa hautatu genuen, bide emankorra izango zelakoan. Webgune bat sortu genuen, eta hor zintzilikatu gure kontra-iragarki propioak, etxean eginak, senari jarraituz. Kontra-iragarki horiek egiteko, lehenik, nork bere burua formatzeko prozesu bat egin behar izan genuen: batetik, gain-ekoizpenaren eta gain-kontsumoaren gizartea aztertu, eta, bestetik, sormenezko ideien zaparrada surrealista egin. 15 urte joan diren honetan, emaitzari begiratu diogu: 500 kontra-iragarkik osatzen dute gure funtsa, 60 minutuko dokumental bat egin dugu, ia milioi erdi lagunek ikusi dutena, eta, gainera, 25etik gora kartel-erakusketa egin ditugu. Hala ere, bidean ulertu dugu kontra-publizitatea, azken batean, bidelagun on bat baino ez dela izan, kontsumoaren aurkako mugimenduak eta komunikazio sozialak bat egiten duten eremuetan barrena lagundu gaituena.

1994an, "50 urte aski dira" izeneko kontra-gailurra egin zen Madrilan, Munduko Bankuaren eta NDFren aurka, eta horrek eman zion hasiera globalizazioaren aurkako mugimendu zabalago bati, zeinak, 1999an, arriskuan jarri baitzuen Munduko Merkataritza Erakundearen (MMA) Gailurra, Seattle hirian egin zena. Globalizazioaren aurkako mugimendua mamitzen

ari zen eta arte instituzional abangoardiakoena orduantxe hasi zitzaion hurbiltzen, gaur egun argi ikus dezakegun eran hainbat museo eta arte-instituzioren programetan.artzelonaBartzelonako Arte Garaikideko Museoak, MACBAk, garaitsu hartan gonbidatu zuen *Fiambrea Obrera*, tailer batzuk antola zitzaizkion, eta han izan ziren *Reclaim the streets* talde britainiarra eta *Indymedia* nazioarteko sarea, hots, komunikabideetan oihartzun zabala lortu zuten bi talde. Hasiera batean, artearekin lotutako gertakari bat baino ez zen hura, baina, gero, Munduko Bankuak Bartzelonan antolatu zuen Gailurraren aurkako erantzun sozialarekin bat egin zuen, eta ezohiko esperimentu bihurtu: zenbait hilabetez, kontra-politika bilakatu zen kontra-kultura, eta MACBA, berriz, komunikabideen erdigune eta globalizazioaren aurkako mugimenduaren arte-laborategi. 90eko hamarkadan, kontra-kulturaren abangoardiako munduak eta garai hartako gizarte-plataforma heterogeneoek elkar ulertu zuten: garrantzi historikoko elkar-ulertzea izan zen. Ideologia politikoa zuten artistak prest zeuden gizarte-mugimenduekin elkarlanean aritzeko eta elkarteak, berriz, konturatu ziren komunikabideetara iristea giltzarria zela beren borrokek aurrera egiteko.

Bi faktore horien arteko lotura zorioneko baina ezegonkorraren ondorengo da ConsumeHastaMorir proiektua: uztartu egiten ditu, batetik, komunikazio arriskatuak, eta, bestetik, halako kontsumo-eredu batek dakartzan arazoak zabaltzeko premia, kontsumo-eredu horrek baliabide amaigabeetan eta eskariaren hazkuntza mugagabeetan baitu oinarria. 80ko hamarkadaz geroztik, kontra-kultura eta gizarte-aktibismo berritua elkartzen diren eremu horrek bere identitate propioa eraiki du, eta ez ditu soilik kontsumo-gizartea eta horren adierazpideak kritikatzeko. Munduan barrena, hainbat talde daude, hala nola, BLF, Reclaim the Streets, Adbusters,

The Yes men, Cassers de Pub, Yomango, Squatters proiektua eta ConsumeHastaMorir; denek kritikatzan dute publizitatearen zeregin ideologikoa, eta, aldi berean, hizkuntzarekin esperimentatzen dute, bai eta adierazpenaren bitartez probokatu ere. Proiektu horiek guztiek parezpare erantzuten diote publizitate-hesien, hipermerkatuen eta masa-komunikabideen bakarrizketari; horretarako, hirietan, telebistan eta spot-etan aditzen den mintzaira erabiltzen dute, bere garaian *pop* arteak egin zuen bezala. Edonola ere, hizkuntzaren mailako jardun horrek ez du balio, non eta ez dion ondo oinarritutako kritika egiten planetako baliabideen banaketa bidegabeari eta horri eusten dion kontsumo-espilari.

Ez da kasualitatea: publizitatearen aurkako mugimendua mamitzen ari zenean, aldi berean ari zen mamitzen beste mugimendu heterogeneo bat, gain-ekoizpen eta gain-kontsumo ereduari erantzunez, eta askotariko plataformak sortu ziren, hala nola kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko elkarteak, nekazaritza ekologikoaren eta elikadura-burujabetzaren aldeko mugimendua, eta, azkenik, bidezko merkataritzako eta kontsumo alternatiboko sareak. Sarri, gizarte-mugimenduen barruan sortzen ziren halakoak, baina subjektu sozial berri baten inguruan ardatzen zuten beren borroka, *prosumer* delakoaren bueltan, hain zuzen ere. Figura horrek, kontsumitzailearen, zeregin aktiboa dauka; hainbestek, ezen zalantzan jartzen baita ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko muga.

ConsumeHastaMorir taldea sortu eta zenbait hila-betera, hainbat ekintza antolatzen hasi ginen; besteak beste, kontra-publizitate tailerrak, komunikazio sozialari buruzko tutoretzak eta ikasmaterialak, sinesten baikenuen kontra-publizitatearen bitartez kontsumoaren mintzairari (inguratzen gaituzten gauzen mintzaira, alegia) buruzko xehetasunak ezagutu genitzakeela. Aski duzu bere ohiko testuingurutik ateratzea publizitate-iragarki bat (ikur, irudi eta sinbolo bidez eta arreta handiz eraikitako 30 segundoko narratiba hori), eta berehala agertzen zaizkizu horri eusten dioten estrategia komertzialak eta, baita ere, zer-nolako balioek osatzen duten eredu sozioekonomiko horren ideologia neoliberal, normalizatzaile eta legitimatzailea. Beraz, iragarkiak modu kritikoa aztertzea zeharkako tresna bat da; izan ere, askotariko gaiak aztertzeke aukera ematen du, publizitatean bertan agertu adina gai (genero-harremanak, botere-rolak, arrakasta sozialaren estereotipoak, bazterketa eta marjinazioa, ingurunearen iraunkortasuna...), eta ez hori bakarrik: iragarki-egilearen



Irudia: © Ecologistas en Acción, ConsumeHastaMorir.

kontraesanetan sakontzeko bidea ere bada, iragarki bakoitzean zin egiten baitigu bizitza konponduko digula.

Zaila da kontsumoa arazo ekonomiko eta sozial nagusien konponbide gisa aurkezten duen ikuspegia zalantzan jartzea, eta horrek enpresa handiei egiten die mesede; izan ere, *zer egingo dugu?* galderaren aurrean, kontsumoaren bidea proposatzen dute, hain justu ere. "Gure produktuak kontsumituta, ingurumena hondatzea eragotziko duzu, eta, ondorioz, klima-aldaketak aurrera egitea", horixe diote energia-enpresen, elikadura-industriaren edo auto-ekoizleen iragarkiek.

Izan ere, gaur egun, urrun daukagu kontsumitzaile historiko hori, prestatuago zegoena; gaur egun, inoiz baino premiazkoagoak zaizkigu mugak jartzeko balio diguten tresnak, estimuluz eta informazio nahasgarriz inguratuta gaude-eta. Modu ikusgarrian ugaritu dira diskurtsoak, esloganak eta proklamak; hala ere, oraindik ez daukagu funtzionatzeari uzteko eraikitako objektuen kate amaiezinean barrena aise mugitzeko balioko digun hizkuntzarik, Baudrillardek esan zuen bezala; eta, batez ere, preso jarraitzen dugu "garapen" delako horren logikan, zeina gezur hutsa baita, kontsumo infinitua eta lehengai agorrezinak bezain faltsua, eta logika horrekin jarraitzen dugu gizateriaren puska handi bat ustiatzearen bizkar, nahiz eta honezkero egiaztatu dugun gure zorientasunaren gakoa ez dela ustezko garapen horren ondorio. Egoera horren aurrean, kontsumismoaren bakarrizketa eten behar dugu, eta, esloganen ordean, galderak egin, zehatz zuzendutako galderak (zer baldintzatan ekoitzi da produktu hau?, zer onura dakarzkigu produktu hau kontsumitzeak?...); ezinbesteko ariketa dugu halako galderak egitea, modu minimoki kritikoa eta ardurazkoan kontsumitzeko: zenbaiteraino kontsumitzen dugu hil arte?

ConsumeHastaMorir



Nortzuk gara

• Comunicación indígena

Hemen aurkituko gaituzue

• www.cumbresdecomunicacionindigena.org

Komunikazio deskolonizatzaile eta eraldatzailea, latinoamerikako herri indigenen borrokarako tresna*

Sarrera: lehenengo argazkia

Hitz hauekin ematen zitzaion hasiera, orain dela urte gutxi batzuk, Boliviako komunikazio indigenari buruz idatzitako testu bati: *"Komunikazio sistema erradialak gizon eta emakume indigenen eta nekazarien eskura, prozesu guztiak kontrolatzeko moduan, ideia eta gidoitik hasi eta telebista edo irrati publikoetan eman bitarteko prozesuan, filmazioa eta ekoizpena barne. Eta hori guztia, ikuspegi eta erabakitasun kolektiboarekin, komunitarioarekin. (horretan, gainera)... badago komunikabideen erabilera eta kontrolaz jabetzeko erabaki politikoa, norberaren prozesuen zerbitzura jarduteko. (...) Prozesu horrek hasieratik bertatik hartu du oinarri erakundearen protagonismoaren errespetua, horiek subjektu politikotzat hartuta eta sinetsita, halaber, posible ez ezik, erronka politikoa ere izan behar duela prozesu benetan eraldatzaile eta emantzipatzaileak bultzatzea, planeta honetako herri eta pertsona gehienek bizi dugun errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta politiko bidegabei aurre egiteko".*

Aurreko guztia –testuinguru eta errealitate politiko eta sozialen eta antolamendu mailakoen araberako ñabardura ageriko guztiekin– Boliviako prozesuari

buruz idatzi bazen ere, berdin-berdin zabaldu liteke Latinoamerikako herri eta antolamendu indigenak protagonista dituzten herrialde eta prozesu guztietara.

Herriei lotutako komunikazioa

Komunikazio indigenak ezaugarri nabarmen bat du, hain zuzen ere, herri horien prozesu, problematika eta irtenbideen berezko alderdi gisa osatzen dela gaur egun. Era horretara, esperientzia gehien-gehienek beren baitan hartzen dituzten ardatzen errepaso tematiko bat egingo bagenu, berehala jabetuko ginatke horretan irauten dutela. Eten-gabeak dira lurralde eskubideen bortxaketen eta Ama Lurraz indarrez jabetzearen aurkako salaketak, bertako uretan (ibaiak edo aintzirak), mendietan, basoetan edo basamortuetan; eta, horregatik, bortxaketa horien arduradunak, zeinak gauzatuta dauden gobernuetan, oligarkia klasean edo transnasionaletan, ahalegintzen dira ez pertsonak ez herriak kontuan hartzen ez dituzten garapen ereduak inposatzen eta ahalik eta etekin gehien lortzen; horiek programa komunikazional askotan ere badaude presente, bai irrati bidezkoetan bai bideo bidezkoetan. Alabaina, badago, halaber, hainbat osagai kultural berreskuratzeko kezka, izan ere, etengabe eraso izan dituzte, eta erasotzen jarraitzen dute, hurrenez hurrengo prozesu kolonialistek, askotari-ko eskubide kolektiboak dituzten herri desberdinen nortasuna deuseztatzeko asmoz; autodeterminazio eskubidea da, besteak beste, eskubide horietako

* Oharra: Testu hau "Komunikazio indigenaren oinarri politikoak" testuaren laburpena da. Ikusi: www.mugarikgabe.org/blog/2016/09/13/bases-politicas-de-la-comunicacion-indigena-en-abya-yala/.

bat. Eta deskolonizazio prozesuetan aurrera egiteko kezka badago, orduan, beste bizi-ildo batzuk ere zabalitzen dira, hala nola, despatriarkalizazioa. Azken batean, gero eta argiago dago komunikazioa, eraldaketa bilatzen duten prozesu politikoekin batera, ez dela inoiz askatzailea izango, baldin eta ez bada emakumeen eskubideetatik abiatuta gauzatzen, eta haien eta gizonezkoen arteko erabateko berdintasunean gauzatzen, horri buruz hitz egin beharrean. Beste ardatz komun batzuk mundu-ikuskeraren indigenaren paradigmak, ideiak eta pentsamendu zentralak dira, zeinak diren, horiek ere, konstante bat beren komunikazioan (ezingo luke beste era batera izan). Era horretara, presente daude, halaber, pertsonen esplotatzaile ez diren beste eredu ekonomiko batzuk, edo nazio askotako estatuen osiera, beste antolamendu eredu batzuen testuinguruan. Eta hori guztia, Ondo Bizitzearen paradigmak dakarren esparru zabalean. Paradigma hori, gaur egun, ez da bizitza alternatiba bat herri indigenentzat bakarrik; horietatik abiatuta, izan liteke alternatiba bat planetako beste herrientzat ere, neurri eta modu batean, bederen.

Oinarri politikoei buruzko hainbat ohar

Aurreko guztia kontuan hartuta, gaur egun berezko komunikazio indigenaz hitz egitea tresna estrategiko batez hitz egitea da, herrietatik eta erakundeetatik eratzen dena, beren prozesu politikoaren zerbitzura egon dadin. Ezinbestekoa izango da herri horien eskubide indibidualen zein kolektiboen bortxaketa salatzeko, eta ezinbestekoa izango da, halaber, identitateak kultura bereizi gisa berregiteko, bai eta herri diren aldetik eskubide guztien inplementazioa eskatzeko ere, nazioarteko tresna guztiek berezkoztat onartzen baitizkiete. Laburbilduz, komunikazio emantzipatzaileari buruz hitz egiten denean, eskubideak bortxatzen dituen errealitate hori guztiz eraldatzeko tresnatzat hartzen da komunikazioa, eta, era berean, hartzen da herri indigenek sistema menderatzailearen aurrean irtenbideak eraikitzeke egiten duten ekarpenentzat.

Ildo horretatik, kontinenteko herri indigenak subjektu politiko historikotzat hartu behar dira une oro, hau da, beren historiaren, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren egile subiranotzat. Eta erronka horretan bihurtzen da berezko komunikazioa, hain zuzen ere, lehen aipatu dugun oinarriko tresna estrategikoa. Horregatik, komunikazio hori ezin da mami politikotik bakandu, ez da apolitikoa; aitzitik, kritikaz eta autokritikaz osatua da, azterketaz eta



Irudia: © Jesus González Pazos.

eztabaidaz osatua, herri horiek subjektu protagonista diren prozesuen zerbitzura egongo den gogoeta, teoria eta ekintza politikoa sortzeko.

Prozesu komunikazional emantzipatzaile horien beste osagai nagusi batzuek, testu honen luzera mugatua dela-eta aipatu besterik ezin ditugunek, harreman zuzena dute herri eta antolakunde indigena gehien arteko oinarriko postulatu politikoekin. Era horretara, azpimarratzen dugu komunitateak osatzen duen indarra funtsezkoa dela herri bat definitzen duen nortasuna eta kultura ulertu ahal izateko. Beraz, osoko ikuspegia eta erabakitasun kolektiboa, komunitarioa, sareko lanarekin batera, funtsezko euskarriak dira irtenbide komunikazional horretan. Hori islatuko da ekoizteko moduan, gidioen prestaketan, zereginen eta erantzukizunen banaketan, lanaren eraikuntza kolektiboan, baina baita berezko narratiban, egiteko eta kontatzeko denboretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, prestakuntza prozesuetan, eta bestelakoetan ere. Izan ere, gauza ez da indigenak ez diren komunikabideen komunikazioa kopiatzea eta aurpegiak aldatzea, besterik gabe. Aitzitik, komunikazio hori erabakitasun politikotik eta norberaren kulturatik abiatuta egin behar da, kultura bizitik eta ez kultura estatikotik; kultura komunitariotik, azken batean. Horrela baino ez du merezi izango urteetako ahaleginak, eta horrela baino ez da eraikiko tresna estrategiko hori herri horien prozesuen zerbitzura.

Jesus González Pazos
Mugarik Gabeko kidea

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak


Izenburua: Boconas

Tokia, urtea: Andaluzia, 2016

Zuzendaritza: **La Mirada Invertida Kolektiboa**

Produkzioa: **Asociación Andaluza por la Solidaridad
y la Paz (ASPA)**

Iraupena: 68 minutu



Sinopsia. Dokumental honetan, Boliviako etxeko langileen istorioak erakusten dira, zehazki, emakume horien aurrera egiteko moduak agertzen dituztenak. Indigenak dira talde horretako emakume gehienak, eta esplotazio, bazterketa eta tratu txar egoeran bizi dira. Radio Deseo –Mujeres Creando talde feminista anarkistaren irrati komunitarioa– indar handiko errebindikazio tresna da emakume horientzat, zailtasun handiak baitituzte sindikatuetan elkartzeko. *Soy trabajadora del hogar con orgullo y dignidad* programaren bitartez, beren borrokaren eta erresistentziaren berri ematen dute, eta, era berean, justizia eta beren egoeratik ateratzeko irtenbideak bilatzen dituzte. Espainian, aldi berean, konstante bat da emakumezko langile horiek osatutako taldearen eskubiderik eza. Era horretara, gai horri buruz eta bi errealitate horiei buruz gogoeta egitera bultzatu nahi dira ikusleak. ASPAren beste proiektu zabalago baten barruan sartzen da film hau, hain zuzen ere, *Fragmentos* (Jóvenes andaluces, Nuevas tecnologías y Educación global) izeneko proiektuaren barruan.



Izenburua: Frame by Frame

Tokia, urtea: Estatu Batuak, 2015

Zuzendaritza: Alexandria Bombach, Mo Scarpelli

Iraupena: 85 minutu

Sinopsia. "Afganistanen talibanen erregimenak agintzen zuenean, argazkiak ateratzea krimena zen. 2001ean erregimena erori zenean, prentsa librea sortu zen, eta argazkilaritzaren iraultza piztu zen horrela. Orain, atzerriko tropak eta komunikabideak herrialdetik joan ahala, Afganistan arnasa hartzen hasi da, bai eta bertako kazetariak ere. Afganistan moderno batean filmatua, kolorez eta nortasunez beteta, filmak lau erreportari afganiarri jarraitzen die, komunikabideentzat arriskutsua den eta azaleratzen ari den panorama batean barrena. Elkarrizketa intimoen bitartez, fotoperiodismo indartsuaren eta inoiz ikusi ez den artxiboko materialaren bidez (talibanen erregimenean ezkutuan grabatu baitzen), egia bilatzen duten lau gizakirekin lotzen dira ikusleak" <<http://festivaldecineyderechoshumanos.com/premiados>>. Film Luze Onenaren Saria jaso zuen Bartzelonako Zinema eta Giza Eskubideen XIII. Jaialdian.

argitalpenak

Izenburua: Gizarte eraldaketarako KomunikAKZIOA.
ComunicACIÓN para el cambio social

Egilea: W.AA.

Urtea: 2017

Argitaletxea: **Calcuta Ondoan**

Helbide honetan eskura daiteke: <http://www.calcutaondoan.org/images/pdf/Comunicacion_c.o.pdf>

GIZARTE ERALDAKETARAKO
#KomunikAKZIOA

#ComunicACIÓN
PARA EL CAMBIO SOCIAL



2016 Giza Eskubideak, Gainera eta Giza Eskubideen Garapenari Dikatuak
Giza Eskubideen Nazioarteko Erakundeak



Sinopsia. Argitalpen honetan, Calcuta Ondoan erakundeak 2016ko urrian antolatutako *Aldaketa sozialerako KomunikAkzioa Jardunaldiak delakoetan landutako edukiak aurkitu ahal izango ditugu. "Gaur egun, komunikabide hegemonikoak dirutza eta botere handien interesen zerbitzupeko tresnak dira, eta, horien bitartez, gero eta gizarte injustu, desorekatu, desinformatu eta desaktibatuagoak sorrarazten eta iraunarazten dituzte. Beharrezkotzat jo dugu hausnarketa eta analisi kritikorako espazio bat sortzea, tokiko eta nazioarteko beste alternatiba komunikatibo, askotariko eta polifoniko batzuk ezagutu ahal izateko. Alternatiba horiek erresistentzia egiten diete pentsamendu bakarrei, eta gizarte kritiko, emantzipatu eta bidezkoak sustatzea eta eraikitzea dute helburu, pertsonak eta bizitza sistemaren erdian birkokatze. Aldaketa sozialerako komunikAKZIOA!! Diskurtsoak eraldatu, mundua eraldatzeko"* (Calcuta Ondoan, 2017).



Izenburua: Medios democráticos. Una revolución pendiente en la comunicación

Egilea: Pascual Serrano

Lekua, urtea: Madril, 2016

Argitaletxea: Akal

Sinopsia. Komunikazioaren demokratizazioa lortzeko borroka lantzen du egileak liburu honetako orrialdeetan, eta, horretarako, Latinoamerikako hainbat herrialdetan osatutako legeriak deskribatzen ditu. Gobernuen neurri horiek helburu garbi bat dute, hain zuzen ere, herritarren esku jartzea komunikazioaren giza eskubidea, oligopolioko erregimenetan diharduten talde ekonomikoen botereek zapaldu egin baitute eskubide hori. Komunikabide pribatuen funtzionamenduaz gainera, beste hainbat gairekin batera, Serranok Estatuaren funtsezko papera aztertzen du, bai komunikazioa demokratizatzeko zereginean, bai gobernuaren ildoari jarraitzeko bidean. Latinoamerikako komunikabideen eremuan izandako aldaketa iraultzaileen esparru horretan, gaur egun oraindik gezur eta manipulazio etengabeak jasaten ditugu Espainiako hainbat komunikabideren aldetik, eta, hori sobera egiaztatu bada ere, ez dute inolako ondoriorik izan legearen alderditik eta ez zaie inolako konturik eskatu jardun horrengatik.

erakundeak

Erakundea: Equipe Media

Web: www.emsahara.com/?lang=es (gaztelania)
www.emsahara.com/article1226.html?lang=en (arabiarra)

Youtube: www.youtube.com/user/EquipeMedia

Facebook: www.facebook.com/EquipeMedia2010



Borroka idealak. 2009an sortu zen saharar talde hau, eta Marokok Mendebaldeko Saharan okupatutako herrialdeetako blokeo informatiboarekin amaitzea helburu duen gazte talde boluntario batek osatzen du. Helburu nagusi bat du, hain zuzen ere, ezagutzera ematea Mohamed VI.aren erregimenak saharar herritar zibilen kontra egindako Giza Eskubideen bortxaketa.

Era honetara kontaktzen du mugimenduaren aktibista den Ahmed Ettanjik erakundearen lan-estrategia: *"jendearengan kontzientzia kritikoa sortzeko eta borroka baketsuari buruz sentiberatasuna sortzeko prozesuak egiten ditugu; marokoarren propaganda gezurtatzen dugu, etenik gabe manipulatzeko baitu Mendebaldeko Saharari buruz emandako informazio oro; eta lan profesionala egiten dugu, GKE-en metodologiekin bat eginez. Indarkerian oinarritzen ez den erresistentzia-modu berri bat egiten dugula iruditzen zaigu; eta atxiloketak, jazarpena eta espetxeratzeak etengabeak badira ere, erabakitasun handiz egiten ditugu gure jarduerak. Lanki de ditugun Bachir Khada eta Banbarik 20 urte eta 6 urteko espetxe zigorrak jaso dituzte, hurrenez hurren".*



Erakundea: Centro de Iniciativas para la Cooperación Batá (CIC Batá)

Eragin-esparrua: Andaluzia

Webgunea: www.cicbata.org

Borroka idealak. Erakunde honen Garapenerako Hezkuntza, Komunikazio eta Kultura alorreko teknikaria den Elena Nagore Cordónek era honetara azaldu digu zer esanahi ematen dioten komunikazioari: *"CIC Batá gobernuz kanpoko andaluziar erakundea da, hasieratik bertatik ahalegindu dena komunikazioari funtsezko giza eskubidearen lekua ematen agenda publikoan, nagusi den eredu mediatikoaren ikuspegi kritikotik abiatuta eta balioa emanez komunikabideen arteko eztabaida, truke eta gogoeta eremuen bitartez egin litezkeen beste jarduera komunikatibo batzuei, Hegoaldeko eta Iparraldeko esperientziei, garapenerako hezkuntza-*

ren eta komunikazioaren eremuko komunikatzailei eta profesionaleri. Azken urteetan, CIC Baták eragin eta parte-hartze ildo horri jarraitzen dio sareetan, eta ahalduzko komunikatiborako prozedurak bultzatzen ditu, hezkuntza formal eta ez-formalaren eremuan. Herri hezkuntzaren eta komunikazioaren ikuspegitik abiatuta lan egiten dugu gizartea aldatzeko, eta aurretiko esperientziak eta bizipenak hartzen ditugu oinarri. Eskubide hori eraldaketarako baliabide hartuta, pertsonen funtsezko beste eskubide batzuk errebindikatzeko komunikaziorako gaitasunak gara ditzaten bultzatzen dugu, begirada munduan jarrita".

ezinbesteko
agenda

Ekitaldia: Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinen Nazioarteko 9. Jaialdia

Deialdia: Kultura, Communication y Desarrollo (KCD GKE)

Lekua eta data: Jaialdiaren egoitza nagusia Bilboko Azkuna Zentroan dago, baina beste 20 egoitza daude Bizkaian eta Araban sakabanatuta. Data ofizialak 2017ko urriaren 19tik 26ra izango dira, nahiz eta irailean hasiko diren aurretiko proiektzioak, eta azaroan amaituko dira, garaile zerrendarekin.

Informazio gehiago: <http://www.kcd-ongd.org>



Jaialdia, KCD GKEek antolatua, urtero antolatzen da, gizarte-aniztasun eta konpromisoz beteriko zinema erakusteko helburuarekin, pantaila konbentzionaletatik kanpo baitago zinema hori. Edukia lau ardatz tematiko handi hauen inguruan antolatzen da: Garapen Iraunkorra, Giza Eskubideak, Kulturartekotasuna eta Genero Berdintasuna. Etenik gabeko lanaren bitartez, ezinbesteko hitzordua bihurtu da garapenerako eta gizarteraldaketarako komunikazioan interesa duten guztientzat. Jaialdia, halaber, ikus-entzunezko lanen bitartez gizakien hainbat errealitate islatzen dituzten pertsona guztiak aintzat hartzeko eremua ere bada. Jaialdiaz gainera, KCD GKEek urtero antolatu ohi ditu Kultura, Komunikazio eta Garapenerako Nazioarteko Topaketa bat (ekaina), Emakumeek egindako Arabar Zinemaren Karabana (maiatza), eta beste prestakuntza, sentsibilizazio eta gogoeta jarduerak batzuk.

Ekitaldia: Komunikazio Zientzien VIII. Topaketa Panamerikarra, eta Informazioaren, Komunikazioaren eta Kulturaren Ekonomia Politikoaren Batasun Latinoaren X. Nazioarteko Biltzarra

Deialdia: Latinoamerikarako Goi Mailako Komunikazio Ikasketen Nazioarteko Zentroa (CIESPAL)

Lekua eta data: CIESPALen Quitoko (Ekuador) egoitza, 2017ko uztailearen 12a eta 14a

Informazio gehiago: <http://ciespal.org/congresosyseminarios/20471>

Komunikazio Politikak eta Kontinentearteko Integrazio Ekonomikoa izenburuarekin, dei egiten diote irakaskuntzaren komunitateari, gogoeta eta eztabaida egin dezan komunikazioaren eta kulturaren eremu akademikoari eragiten dioten erronkei buruz, Latinoamerikako gaur egungo testuinguru historikoaren barruan. Gaur egungo kontinentearteko integrazio prozesuak ez dira komunikazioaren eremutik kanpo gelditu; are gehiago, eremu pribilegiatua dira, interkonektatutako eremu globalean ohikoak diren dinamikak, tirabirak eta gatazkak aztertzeke.

Komunikaziorako Eskubideari buruzko eztabaiden inguruko gaiak landuko ditu biltzarrak, bai eta erresistentzia egiturari, politikei eta prozesuei eta demokrazia informatiboaren babesari buruzkoak ere, kontinente arteko askatasun prozesuen azterketarako eredu teoriko-metodologiko berriak aztertuz, hala nola, European zein Estatu Batuetan eta Latinoamerikan borondate demokratizatzaile oro mehatxatzen duten TTIP hitzarmenak.

matxino artean en rebeldía

Nire lana emakumeei buruzkoa da, batez ere. Nire obran agertzen den emakumeak aktore bat ekartzen digu gogora; pintoretako bakoitzean pertsonaia desberdin bat irudikatzen duen aktore bat, hain zuzen ere.

Noizean behin, burka erabiltzen dut bere pertsonaiak erakusteko; beste batzuetan, ez darama burkarik, baina itxita ditu begiak. Burkak ez dauka zeregin garrantzitsurik emakumeen bizimoduan; hori dela-eta, ez da beharrezkoa nire pertsonaiak burka janztea.

Nire obrako emakumeak musika-tresna bat darama; ez da musika jotzeko, bere ahotsa entzun dadin baizik. Musikaren arteak entzuleria erakartzen du; hori dela eta, musika-tresna erabiltzen du ozen hitz egiteko eta jendearen arreta erakartzeko.

"Birds of No Nation" (Aberririk gabeko txoriak) seriean ikus daitekeenez, azkenaldian migrazioan oinarritu dut nire obra. Afganiarrak beren herrialdetik alde egiten ari dira, eta milaka kilometroko bidaia egiten dute, euren baino nazionalitate hobea eskuratzeko. Hala ere, askatasunaren eta segurtasunaren bila egiten duten bidean, heriotzari, segurtasun ezari eta arrazakeriari egin behar diete aurre.



Instagram eta Facebook: Shamsia Hassani

Mi obra se basa principalmente en las mujeres; la mujer que aparece en mi obra nos recuerda a una actriz que retrata diferentes personajes en cada una de mis pinturas.

En ocasiones utilizo el burka para mostrar sus personajes, en otras ocasiones no lleva el burka pero sí los ojos cerrados. El burka no juega un papel importante en la vida de las mujeres, por eso no es necesario que mi personaje lo lleve.

La mujer de mi obra porta un instrumento musical, que no es para tocar música, sino para que su voz se escuche. La música es un arte que atrae a la audiencia, por lo que utiliza el instrumento para alzar su voz y atraer la atención de la gente.

Como se puede ver en la serie "Birds of No Nation" (Pájaros Apátridas), últimamente mi obra se centra en la migración. Los afganos están abandonando su país y viajan miles de kilómetros de distancia para recibir una nacionalidad mejor que la suya. Sin embargo, en su camino hacia la búsqueda de la libertad y la seguridad se enfrentan a la muerte, la inseguridad y el racismo.

